

...eta
Kitto!

2019-XI-28

1121 zkia.



30 urteko SUKARRA

eslaban

eslaban.com
T. 943 820 407

Igogailuak **Fatxadak** Teilatu berritzeak eta aldaketak
Erreformat Proiektuak **Konponketa bereziak**
Lantokientzako lan bereziak **Eraikinen mantentzea**



Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



bista eder

clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar

www.bistaeder.es



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

GAZTEON ATALA:
Malen Illarramendi

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Mikel Askasibar

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)**

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu

iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzak bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

HURRENGO ALEA ABENDUAREN 13AN KALERATUKO DUGU

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MOMOLIN.- Ganorabakoa (neskei buruz esaten da). "Alde bistatik momoliñori, traba baiño ez duzu egitten eta".

astean esanak

"Bi Lur xahutzeko kontsumo maila dute Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak, ekosistemen birsortzeko ahalmena baino handiagoa. Munduko biztanleria guztiak EAEko herritarrek adina kontsumituko balu, 2'65 Lur planeta beharko liriateke egungo baliabide naturalen eskaria ase ahal izateko. Aztarna ekologikoaren parametroaren arabera, munduko biztanle bakoitzak 1,63 hektarea globaleko eremua dauka kontsumo propiorako. EAEko herritarrek, ordea, 4,32 hektarea globaleko eremua erabiltzen dute"

(IÑAKI ARRIOLA, EJ-KO SAILBURUA)

"Gizakiok makinekin maiteminduko gara eta eurak ere maitatuko gaituzte. Orain arte makinek hil egin gaituzte bakarrik, askotan errugabeak akatzen dituzten dronen bidetik, azken erabakiak hartzen dituzten algoritmoen jarraituta. Eskuak ez zikintzean, erreparatuko izateko motiboa ere desagertzen da-eta. Horregatik du hain garrantzia handia intelgentzia artifizialak hartu dezakeen ibilbideak. Intelgentzia hori zein nanoteknologia orain arte militarrek bultzatutakoa izan da. Dagoeneko ez du ez hiltzearekin balio; biologiaren, naturaren nanoteknologiaren, eskutik joan behar da, ilustrazio berria sortzeko"

(SANDIP TWARI, NANOTEKNOLOGOA)

"Gizarte askotarako askatasuna ez da hain garrantzitsua, ongizatea, eraginkortasuna eta justizia askoz baloratuagoak daudelako. Ongia, bakea eta justizia, etorkizunean, guregatik beste batzuk hartuko dituzten neurrietan egongo direla sinestarazi nahi digute, sistema horiek eraginkorragoak izango direlakoan. Zertarako administratugatik askatasunak eskaintzen digun miseria? Kritikoki pentsatzeak ahalegina eskatzen du, sistema demokratikoak bezala, eta nagiak gara, ahul hutsak. Borondatezko dependentzia horrek pasibotasuna sustatzen du, baina eroso da oso. Zertarako aurre egin, zorioneko esklaboak izateko aukera badugu?"

(JOSE ANTONIO MARINA, FILOSOFOA)

Indarkeria matxistaren kontrako kontzentraziñua egin zan 25ian

Astelehen illuntzian alkarretaratze jendetsua egin zan Untzagan, indarkeria matxistaren kontra. Udalak aurten be egin dau bat Emakumienganako Indarkerixaren Kontrako Adierazpenarekin eta, kontzentraziñua amaittu baiño lehen, adierazpen horretako testua irakorri eben. Azaruaren 25aren harira antolatu dittuen jarduerak hillebete osuan zihar ari dira garatzen eta, gaur bertan, 19:00etatik aurrera "Emakumeen superbibentzia eta errebelioa gatazka armatuan" dokumentalaren emanaldixa eta solasaldixa egingo dira Portalean. Eta bixar eta etzi, barriz, Sexu-Bizi zerbitzua (informaziño eta babeserako gune segurua) eskinduko dabe Untzagan, 00:00etatik 03:00etara. Interes dakenak 688853440 telefono zenbakira deittu ahal izango dabe edozelako konsultak egitteko.



Belekok irabazi dau XVI. Eibarko Pintxo Lehiaketia

Arrate Kultur Elkarteak, Udalaren eta Eibar Merkataritza Gune Irekiaren laguntasunarekin antolatutako XVI. Eibarko Pintxo Lehiaketako irabazliak aukeratu dittue. Epaimahaixa Ruben Etxaniz, Unai Magunazelaia eta Josu Gimenezek osatu dabe eta, pintxo guztiak probatzen ibilli eta gero, pintxo onenari sarixa Beleko tabernari emotia erabagi dabe, "Txarritzinni" pintxuarengaittik, "zaporien artian pausorik pauso jolasteko eskintza biribiltziagaittik". Bertako produktuekin egindako pintxo onenari sarixa, barriz, Kultu tabernakuak esku-

ratu dabe, "Gure ortutxo" pintxuarekin, "ohiko plater bat, menestria, pintxora eruateko proposamenarekin asmatziagaittik". Eta Amañako Jan eta Edan tabernakuak sari bi eruan dittue "Al tuntun" pintxuarekin: publikuaren sarixa (aurtengo lehiaketan 3.228 bezerok emon dabe botua guztira) eta, horrekin batera, epaimahaixaren aittamen berezixa jaso dabe, "zaporien bizittasuna eta horrek alkarren artian josi eta osagarritzeko gaittasunagaittik". Irabazliak San Andres egunian jasoko dittue sarixak, Azokako saridunekin batera.

Soziedadien ikerketarako eibartarren laguntasuna eske

Eibarko taillarren eta herriko alkarte gastronomikuen arteko harremanak ikertzen dihardue Igor Etxabek eta Iker Eizagirrek, Ego Ibarra batzordiarren laguntasunarekin, eta horretarako abiapuntu modura ...eta kitto! Euskara Elkarteak 1996xan bildu eta "Eibarko elkarte gastronomikoak" liburuan kaleratutako informaziñua hartuta. Orduan sasoiari, 60 alkarte eta 2.216 bazkide eguzen eta ointxe zerrendako izen-abizen guztiak konfirmatzen eta bazkidien bigarren abizena billatzen dihardu Iker Eizagirrek. Asmo horrekin, Eibarko soziedade guztieri kartia bialdu detse, bihar horretarako laguntasuna eskatzen. Izan be, alde batetik pertsona horrek identifikau egin bihar dira eta, bestetik, bazkide horrek ezagutzen dittuen eibartarrak topau nahi dittue. Baten batek ikerketarako erabilgarrixa dan informaziñua dakala pentsau ezkeru, datuak biltzeko biharrian ari dan Iker Eizagirrekin kontaktuan ipintzeko eskatu dabe Ego Ibarrik, egoibarra2@eibar.eus helbidera mezua bialduta edo, bestela, 943708421 telefonora deittuta.



Torrepe alkarteko bikotia irabazi eban Bakillau Txapelketia

Domekan Untzagan jokatu zan "San Andres Sarixa" XXVII. Bakillau Txapelketako lehen sarixa Torrepe alkarteko Norberto Ojanguren eta Ana Cristina Laskurainek osatutako bikotia eskuratu eban. Bigarren sarixa, barriz, Untzaga alkarteko Iker Iralagoitia eta Goren Lopez sukaldarixak jaso eben eta, hirugarrena, Usobide alkarteko Miguel Perez Balentziagak eta Anartz Mitxelenak eruan eben. Aurten 30 bikotek hartu dabe parte guztira eta txapelketia Eibarko Udalak antolatu dau, Bacalaos Alkorta, Solera Eibarresa eta Maimonako Sociedad Cooperativa Virgen de la Estrellaren laguntasunarekin. Bestalde, Eibarko Bakillauaren Kofradixia omentzeko aprobetxatu eben aurreko asteburuko ekitaldixa eta, horrekin batera, Kaleetan Kantuz abesbatzak bere kantuekin girotu eban txapelketia. Argazkixak etakitto.eus web orrixan, "mediateka" atalian ikusi leikez.





Kaixo Eguna ospatu eben zapatuan


Urteroko martxan, erretratuan ikusten ditzuzuenak Eibarren alkartu ziran Kaixo Eguna ospatzeko. Aspaldiko lagun-taldiak egunerako erropak ez eze, kartelak eta pegatinak be egin zittuan eta, eguardixan Untzaga inguruan txikiteuan ibilli eta gero, Milafloresen egin eben bazkarixa.



Primerako jaixa egin eben 1994an jaixotakuak

Aurten 25 urte betetzen ditzutenak aurreko zapatuan alkartu ziran, alkarrekin bazkaldu eta eguna jai-giruan pasatzeko. Egun osuan eurixa egin arren, horrek ez zetsen parrandarako gogorik kendu eta ederto pasau eben.

autuan



BIGARREN ESKUKO AZOKARAKO IZEN-EMOTIA

Udalak antolatuta, Bigarren Eskuko Azokia egingo da abenduaren 14an Untzagan eta, nahi dabenak, erabilittako gauzen salmentarako postua ipiñi ahal izango dau, aurretik izena emonda. Interesa izanez gero, abenduaren 5era arteko epia dago, 943 670 249 telefonora deittuta. Eta postua ipiñi barik be gauzak saltzeko aukeria egongo da (15 gauza gehixenez), saldu nahi dana gordailu-salmentan lagata. Antolakuntzakuak arduratuko dira saltziaz.

Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean
Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi

METALEZKO ERAIKUNTZAK ETA ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA

ulmar S.L.
metalezko eraikuntzak

Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak burdin eta altzairu herdoilgaitzetan.

TAILERRA: Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 121 367 Faxa: 943 120 150

ERAKUSKETA: Urkizu, 26 - behea
Tfnoa. eta Faxa: 943 127 401

info@ulmar.net - www.ulmar.net

Beti Berria Bezala

Arraguetako bizilagunendako 11 etxe lagako dittu Udalak

Oin dala egun batzuk Arraguetan etxe zati bat jausi zala-eta, kale horretan, 15. eta 17. zenbakietan bizi ziran 39 lagun inguru euren etxietatik etara eta, behin-behineko neurri modura, Arrateko aterpetxian eta hoteletan hartu zituen. Halanda be, aurrera begira egoeria zenbat luzatu leikian jakitzia gatxa danez, bizilagun hórrendako bestelako erantzuna emoten ahalegindu dira eta, aurreko astian alkatia, Jon Iraola Obra eta Hirigintza ziñegotzixarekin eta Patricia Val Alokabideko zuzendarixarekin batera emondako prentsaurrekuan azaldu-



15 zenbakiko etxea botata, 17 zenbakixaren egoeria aztertzen dihardue.

takuari jarraituta, kaltetuak hartzeko moduko 11 etxebizi-

tza eskindu dittue. Famelixa tipologia oso anitza danez, Gi-

zartekintzaren esku laga dabe gaixa, baktokxaren premiñak ikusi eta, horren arabera, etxe baktokxian zein biziko dan erabagi deixan.

Bestalde, eraitsi biharreko etxe bixak botatzen amaittu eta gero, lanak eraginda 17. zenbakixa kaltetu dan ikusten ibilli dira arkitektuak eta, esan dabenez, etxiak ez dauka jaus-teko arriskurik. Halanda be, eraikiñaren egoeria ikusitta, jaberri aukera bi emon detsez: eraikiña indartzeko biharrek egittia edo, bestela, etxia eraistia. Pegora osua famelixa bakarrena da egunotan hartu biharko dabe erabagixa.



PSOEren hirigintza politikia gogor kritikau dau Bilduk

Aurreko barixakuan egindako prentsaurrekuan, Eibarko EH Bilduk hirigintza arluan PSOEek dakan politikia errepasau eta gogor kritikau eben. Aurreikusitta daguazen etxebizitza promoziño barrixen inguruan berbetan ekin zetsen agerraldixari: "2006ko Plan Nagusixak enpresa eraikitzaile pribauen esku laga eban Eibarko hiri eredia eta oin, 2019xan, Plan horren ondorixuak ari gara jasaten. Datorren urterako Eibarren 10 etxebizitza promoziño barri dagoz aurreikusitta, 500 etxebizitza inguru, baiña benetan bihar dira etxebizitza barri gehixago 1.200 etxe hutsik dittuan hiri honetan?". Horrekin batera, Udalak oin dala

gitxi jaso dittuan bi sententzien arabera, eibartarrok 3 millioi euro galduko dittugula gogora ekarri eben, "PSOEek Plan Nagusixarekin egin daben kudeaketarekin. Sententzia bixak dira larrixak, baiña Espinosa de los Monteros famelixaren kasua bereziki larrixa dala begittantzen jaku, izan be 1'5 millioi euro pagau bihar detsaguz Sakunian daguazen lur batzurengaittik". Horrekin batera, "eta Electrociclos eta Barakaldoko bizilagunak lasaitzarren", trenaren estaldura ez dabela babestuko berretsia eben eta Arraguetako etxien inguruan, barriz, Udalak izandako erantzukizuna argittu biharra daguala esan eben.

Domekan ospatuko dabe Santa Barbara Museuan

Aurten beste batzuetan baiño pixkat lehenago, abenduaren 1ian ospatuko dabe Santa Barbara, armagiñen zaindarixaren eguna Eibarko Armagintzaren Museuan. Jaixaren aitzakixarekin, domekan ez dabe Museora sartziagaittik kobrauko eta, gaiñera, urte osuan ikusi leikian erakusketaren bi bitrinetan pieza barrixak erakutsiko dittue. Horrekin batera, Jose Luis Valenciagaren eskutik bi bisita gidatu (10:30xetan eta 11:30xetan) egingo dira, bixak gazteleraz. Bisita baktokxerako 22 lagun onartuko dittue gehixen jota eta, interesa dakanak, aurretik izena emon biharko dau 943708446 telefonora deittuta edo museoa@eibar.eus helbidera mezua bialduta.



Jose Luis Valenciagak gidatuko dittu bi bisitok.

Andrazkuen topaketia egin zan asteburuan Arrateko kolonian

Entreamigos-Lagun Artean alkartekua andrazkuen topaketia egin eben Arrateko aterpetxian aurreko asteburuan eta bertan egon zan Lorena Cabnal (Maya Q'echi-xinka eta Tzk'at-Red de Sanadoras Ancestrales del Feminismo Comunitario Territorial desde Iximulew-Guatemala) formatzaillia be. Alkarteko ordezarixen berbetan, "lujua izan zan toki ezberdiñetatik etorritako andrekin eta Lorena Cabnalekin asteburua pasatzia eta danon artian esperientzia eta bizipenak konpartitza. Lorenak dakazen indarra eta energixia, antziñako jakinduria, ibilbide politikua eta baita feminismo komunitarixuaren barruan egindako biharra ikaragarrixak dira, eta guzti hori teknika eta modu ezberdiñetan azaldu eta konpartitzen dau. Benetan be hausnarketa personal interesantia egitteko moduko asteburua izan da". Arrateko topaketan 25 andrak hartu eben parte.



Txarla-dokumentala gaur Portalean

Entreamigos-Lagun Artean alkartiak, Eibarko Berdintasun sailarekin batera, "Supervivencia y Rebelion de las Mujeres en el Conflicto Armado" izenburuko txarla-dokumentala antolatu dau gaurko, 19:00etan Portalean. Actoras del Cambio alkarteko kidea dan Aura Marina Yoc Cosajay guatemal-

darrak Chimaltenangon egindako "Yo soy la voz de la memoria y cuerpo de la libertad" dokumentala emongo dabe lehelengo eta, hori amaittu eta jarraixan, solasaldixa hasiko da. Jorratuko dittuenean artian, bestiak beste, gerrak andren gorputzetan lagatako azarnak eta haur eta andrazkuak konflikto armatuetan bezalako gaixak dagoz.



Kulturarteko Topaketia ospatuko da domeka goizian

Aurreko urtiotan bezala, Udalak eta jatorri anitzeko alkartiak Kulturarteko Topaketia antolatu dabe, gure herrixan dagan aniztasuna kalera etara eta erakusteko asmuarekin. Domeka goizian, 10:00etatik 15:00etara ospatuko dabe, Untzagako karpan, eta jardueraz betetako programaziñua preparau dabe: 10:00etan Akroyoga taillarra hasiko da; 11:00etan ipuin-kontaktia egingo dabe, euskeraz; 12:00xetan ekingo detse "cross-boxing" taillarrari eta ordu horretan hasiko dabe Marrokiar musikia eskintzen; ordu erdi geruago, 12:30xetan, Afrikar perkusiñuak eta dantzak beteko dabe karpa; ondoren, 13:30xetan, soka dantza egingo da; eta 14:00xetatik aurrera moda taillarra eta desfile egingo dittue. Horrekin batera, Munduko Terraza izeneko gunian, jatorri anitzeko janarixa eta pintxuak salduko dittue.

Inmigraziñuari lotutako hiru hitzaldi egingo dira abenduan

Udaleko Aniztasun Kulturala atalaren eskutik hiru hitzaldi egingo dira abenduan: "Procedimiento para conseguir la nacionalidad española" izenburukua abenduaren 5ian izango da, 19:00etan Portaleko ikastaro gelan. Abenduaren 14an, barriz, "Derechos en las relaciones laborales del trabajo domestico" izenburuko hitzaldia eskinduko dabe, 11:00etan Andretxean. Eta abenduaren 19an, 19:00etatik aurrera, "La normativa de extranjeria" hitzaldixa emongo dabe Portalean, ikastaro gelan.



Udaleko Aniztasun Kulturala atalaren eskutik hiru hitzaldi egingo dira abenduan: "Procedimiento para conseguir la nacionalidad española" izenburukua abenduaren 5ian izango da, 19:00etan Portaleko ikastaro gelan. Abenduaren 14an, barriz, "Derechos en las relaciones laborales del trabajo domestico" izenburuko hitzaldia eskinduko dabe, 11:00etan Andretxean. Eta abenduaren 19an, 19:00etatik aurrera, "La normativa de extranjeria" hitzaldixa emongo dabe Portalean, ikastaro gelan.

La Salleko Juan Bautistaren 300. urteurrenari agur

Aurten 300 urte bete dira La Salleko Juan Bautistak bere misiñua hasi ebala eta, urteurren hori goguan, ospakizunez betetako urtia agurtzera doiaz La Sallek Espaiñian eta Portugalen dittuan 120 bat zentruetan, baita Eibarren duguaz bi ikastetxietan be. Gaur goizian ospatu dabe Azittaingo ikastetxian, iragana gogoratzeko ekimenarekin. Horretarako maiatzaren 14an Untzagaren egindako ekin-tza gogora ekarri eta leporako zapixak eta biseria aurkeztuko dittue. Jarraixan, aurtengo ikurraren presentaziñua egin dabe. Eta Isasiko ikastetxian, barriz, 300. urteurrenaren itxiera ospatzeko, danen artian 300 haundi bat irudikatu eta argazkixa etara dabe.



Abenduaren 3an denok Untzagara

Badator aurtengo Euskeraren Eguna, **abenduaren 3a** ate joka dugu, eta Eibarko Euskalgintzak antolatu duen egitarauan parte hartzera gonbidatu eta animatu nahi zaituztegu.

Goizean goiz hasiko dugu eguna:

11:00etan, 15:00etan eta 15:30ean dantzaldiak egongo dira Untzagan parte hartu nahi duten guztientzat. Dantzari onak ez bazarete ez kezkatu, ondo pasatzea da garrantzitsuena.

Arratsaldeko 17:15ean kalejira egingo dugu anbulatoriotik hasita Untzagaraino, eta han, harmailen aldean (euria egingo balu karpan), **EUSKERAREN SAREA** osatuko dugu eibartarrok, arratsaldeko 18:00etan. Horretarako, baina, ezinbestekoa da herritarron parte-hartzea. Horregatik egiten dizuegu dei **abenduaren 3an denok Untzagara** joan zaitezten.

19:00etan euskeraren ordenantza berrien aldeko udalbatzaren adierazpen publikoa egingo da udaletxeko pleno aretoan.

ZATOZ!

JOSTORRATZ ETA HARIA SARETUZ HERRIA

**11:00etan
DANTZALDIA**

**15:00etan
DANTZALDIA**

**15:30ean
DANTZALDIA**

**KALEJIRA
UNTZAGARAINO**
17:15: Anbulatorioa
17:30: Depor
17:45: Untzaga

**18:00etan
EIBARTARROK
SAREA
EGINGO DUGU**

EUSKERA^{REN} EGUNA **ABENDUAK 3**

Eibarko EUSKALGINTZA taldea


Eibarren
AKEBAI



EIBAR

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL



ESKERRIK ASKO! 😊

Kontsultara etortzen zareten paziente guztioi proiektu hau posible egiteagatik: **Gure lantalde profesionala eta instalazioak handitu ditugu zerbitzu hobea eskaintzeko.**

Ilusioz eta bokazioz sortutako egitasmoa, beti kalitatezko odontologia baten alde.

**San Andres
Zoriontsuak**

🏠 San Agustin Kalea, 4 Behea Ezkerra
20600 Eibar (Gipuzkoa)

☎ 943 537 076 - 688 884 808

✉ info@eibarclinicadental.com

R.P.S. 72/19
MAITANE G. IÑIGUEZ
ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA

Bakillauaren Kofradixiak lan eskerga egin du azken 25 urteotan, jo eta su, baina oraingoan elkarte "stand by"-n lagatzea erabaki dute. Jesus Mari Murua eta Jose Ignacio Ibarzabal dira kide bakarrak gaur egun eta, ordezkorik ezin izan dutenez aurkitu, aukera eskaini nahi diete geroago animatu daitezkeenei: "Elkartea ez dugu desegin, hor jarraitzen du, ea bateren bat animatzen den gure lekukoa hartzera".

Omenaldia jasotzea ez zutela espero aitortzen digute Bakillauaren Kofradixiko azken bi ordezkariak: "Baina oso polita izan zen, iaz 25 urte bete ondoren eskaini zigutena. Plaka handia eman zigutena, pisutxua benetan, eta gero bazkari batera ere gonbidatu gintuzten. Egun polita izan zen". Orain ea atsedean piska bat hartzeko aukera duten, ondo merezia dute-eta.

Lehiaketa gastronomikoak antolatzen zituena talde batek, "Angel Elizondoren sasoian", sortu zuen Bakillauaren Kofradixia 1993an, "euskar gastronomian hain garrantzitsua den jakia goratzeko asmoz". Hori baino lehen, 1988an, "bakailao lehiaketetan



BAKILLAUAREN KOFRADIXIA, mende laurdena pil-pilean



Ibarzabal eta Murua pozik daude aurreko domekan jasotako omenaldiarekin. Epaimahaiko ere izan ziren.

gero eta jende gutxiagok parte hartzen zuela ikusita", bakailao maratokia egin zuten. Bederatzi elkarteko 90 sukaldarik jardun zuten lanean eta 500 kilo bakailao prestatu zituzten: "2.000 razio inguru saldu ziren eta irabazitako dirua San Andres Erresidentziarako izan zen". Ez hori bakarrik, Guinness Record-ean sartzea ere lortu zutelako. Hori txiki lagata, hurrengo urtean 1.000 kilo bakailao prestatu zituzten. Muruak ondo gogoratzen du Aurora Baskaran orduko alkatetate hurrengokoa 2.000 kilokoa izan behariko zuela esan ziola. Baita bere erantzuna ere: "Udalak dirua ipintzen badu".

Beste sasoi batzuk ziran haiek, bakailao lehiaketak "Memorial Hajar" izenarekin hasi zirenak, "Udalak gero jatetxe batera gon-

Catalana Occidente Seguros

ERANTZUKIZUN ZIBILA / AUTOAK
 BIZITZA ETA JUBILAZIOA / OSASUN
 ASEGURUA / ISTRIPU BANAKAKO ETA
 KOLEKTIBOAK / ARRISKU ANITZAK

EMILIO DE LOS TOYOS
 Erreg. zkia. C046815351532K

Eibarko Txikito, 8
 943 200 908 / 610 422 179
 emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com

ASEGURUA

PUBLI RESA
 objeto publicitario

Armagin, 3-5 beheak

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

publiresa@publiresa.com 943 701 497 / 687 879 667

bidatzen gintuen afaltzera, gainera". Hori bai, jasotzen zuten diru guztia "beti Ospitalerako izaten zen".

Kapitulua urtero Sanandresetan

laz Kofradiaren 25. kapitulua egin zuten, azken kofradeak izendatuz. Urtero, kanpotik etorritako beste kofradia batzuetakoekin elkartzeko ziren eta, kalejira egin ondoren, ohorezko kideak izendatzen zituzten Portalean egiten zuten ekitaldi berezian. Ohorezko kofradeek, jarraian, zin egiten zuten "leku guztietan bakailaoa babestu, berreskurtu eta sustatu" egingo zutela. Modu horretan Eibarko (edo Eibarrekin lotutako) pertsoniak omendu nahi izan dituzte. Hasierako urteetan, ohorezkoek aparte, merituzko kofradeak ere izendatzen zituzten: "Ohorezko kofradeetan ere, 2002ra arte, bost-sei izendatzen genituen urtero; ondorengo urteetan, hirukote bat". Harro daude tartean munduko hiru txapeldun izendatu zituztelako: "Patxi Usobiaga eskalataile, Asier Cuevas atleta eta Josu Ereña tiratzaile". Oihartzun handiena "Miguel Gallastegi pilotaria eta Imanol Arias aktorea" hartu zuen ekitaldiak sortu zuela aitortu digute, "jende mordo aurrera eta atzera". Izan dituzte urteak ere kanpotik etorritako 21 kofradia batu dituztela gurean, "Portugaletik, Castelletik, toki askotatik etorritakoak".

Gero eta kofradia gehiago sortzen direla diote, baina aldi berean "baita desagertu ere". Adinean aurrera doazenak osatzen dituzte kofradia horiek gehienetan, "baina Santoñako Antxoarenean badira gazteak di-

Bakillauaren Kofradixako Ohorezko kofradeak

- 1994: Eibarko Herria (Iñaki Arriola). *Merituzkoak*: Lakor, Eroski eta Laboral Kutxa
 1995: Miguel Gallastegi, Imanol Arias eta Ana Af Sand itsasontzia (Emil Olsen).
Merituzkoak: SD Eibar, Supermar, Jose Miguel Laskurain eta Juan Mari Narbaiza
 1996: Andoni Ferreño, Patxi Biskert, Ramon Sarasua, Aitor Etxaburu eta Lorenzo Motos.
Merituzkoak: Goi-Argi, Viña Alkorta eta Sakanako Txistorra Kofradia
 1997: Juanma Lopez Iturriaga, Juan Gisasola "Txoko" eta Ricardo Idiakez.
Merituzkoa: Aitor Buendia
 1998: Xabier Elorriaga, Goruntz Abesbatza eta Jon Barrondo
 1999: Cristina Larrea, Eibarko Klub Deportiboa eta Alberto Albistegi
 2000: Peli Egaña, Paulino Larrañaga eta Ipuru Gimnasia Erritmikoa.
Anaitzea: Portugalgo Ilhavoko Bakailao Kofradia
 2001: Aurea Mendizabal, Eibarko Txirrindularitza Elkarte eta Usartza Txistulari Taldea
 2002: Arrate Martin, Alberto Ormaetxea eta Hilario Murua
 2003: Juanita Unzueta, Imanol Elorza eta Fernando Caldeira
 2004: Patxi Usobiaga, Revista Eibar eta Aldatze Ikastetxea
 2005: M^o Asun Anguera, Josu Ereña eta Udaltzaingoa (Jose Miguel Calle)
 2006: Gabriel Sanchez "Macho", Fran Lasuen eta Esteban Oroz
 2007: Odile Kruzeta, Cielito Musika Banda eta J.D. Arrate
 2008: Ana Ramos, Antxon Narbaiza eta Kezka Dantza Taldea
 2009: Enrike Zuazua, Pedro Palacin eta Miren Mandiola
 2010: ...eta kitto!, Jose M^o Salvador eta Jose Antonio Azpilikueta
 2011: Asier Cuevas, Iñaki Orbegozo, Jose M^o Cornago eta Juan Ortega
 2012: Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Ibon Uzkudun eta Ander Romarate
 2013: Jose Luis Irigoien, Ylenia Baglietto eta Asola Berri
 2014: Nafarroako Rellenoarenean Kofradia, Mikel Urkola eta Arrate Elkarte Filatelikoa
 2015: Bar Valle, Alberto Etxaluze eta Eibar Rugby Taldea
 2016: Carmen Agirre, Jose Zugasti eta Asier Serrano
 2017: Cesar Huertas, Mireia Etxaluze eta Nekane Muguruza
 2018: Periko Iriondo, Mateo Guilbert eta Koro Alonso

renak, ehun dira". Hasieran bederatziko kofrade izan zituen Bakillauaren Kofradixak eta azken urteotan bi lagun artean egin behar izan dituzte harat-honat guztiak. "Biaraz daude, batez ere: disponibilitatea eta dirua. Gure poltsikotik ordaindu behar ditugun bidaiak eta bazkariak, ez da merkea". Azken urtean, esaterako, Jose Ignacio Ibarzabal 26 tokira joan izan da, "bikotea lagun".

Baina, horretaz aparte, hemendik aurre-

rakoaz ere jabetuta, 2005. urtetik Eskolarteko Bakailao Lehiaketa antolatzen dihardute. Eta badute proposamenik egiteko: "Zer-gatik ez 14tik 16 urtera arteko lehiaketako irabazleek hurrengoan helduekin lehiatu? Badira maila oso ona duten gazteak eta horrek promozionatzeko balio dezake". Jesus Mari Muruak anekdota bat gogoratzen du: "1.000 kilo bakailaori igerilekuan kentzen ziotela gatz" zabaldu zenean.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI
 www.capiestetica.es

BERRIA!!!
BEGI
 ingurunerako tratamendua

LIFTING
 tratamendua

BETILE LUZAPENAK
LIFTING

LASER DEPILAZIOA
 5 saioetarako **BONOA 99€**
 Hanka osoak + iztarreak
 + besapeak **95€**

Hanka osoak 60€ Bizkarra+Lunbarra 50€
 Iztarreak+Besapeak 50€ Espaina/Begitarrea 10€
 Bularra+Abdomena 50€ Zona/saloko 30€

943 20 17 33
650 71 03 36
629 48 15 92

Eibarbus
Betidantik, esku onetan!

- Bertoko eta nazioarteko **BIDAIK**
- Enpresa eta eskola **GARRAIOAK**
- TXANGOAK**

Isasi 20 - behea
 eibarbus@eibarbus.com
 www.eibarbus.com



Zapatuarekin ailegatuko zaigu San Andres eguna

San Andres jaiak ospatzeko urtero antolatzen diren ekimenen artean, zalantza barik, Azokak garrantzi berezia izaten du beti. Aurten, gainera, San Andres eguna zapatuan egokitu da eta, beraz, egun horretan egiten den Azokak beste batzuetan baino jende gehiago erakarriko duela aurreikusitako daiteke, besteak beste Eibartik kanpora lan egin edo ikasten duten askok jai izango dutelako.

Udalaren eskutik egingo den XLI. San Andres Nekazal Azokak 72 ekoizle bilduko ditu guztira. Horietako 34 bizkaitarrak dira, 24 gipuzkoarrak, 11 arabarrak eta beste hiru, berriz, nafarrak. Tartean Eibarko baserri bi egongo dira: Loixola baserria, barazkiekin, eta Sosola, ogiarekin. Aurreko urteetan bezala, Azokako postuak Txaltxa Zelai eta Untzaga artean banatuta egongo dira. Epaimahaiak 09:30ean hasiko ditu bere lanak, Azokara ekarritako produktu guztiak ondo begiratu eta gero kategoria bakoitzeko irabazleak aukeratu ahal izateko.

Azokan salgai jarriko dituzten produktuen zerrendan honako hauek daude: barazkiak (17), frutak (3), ogia (21), gazta (19), Debabarreneko gaztak (2), eztia (6), txakolina (1); eta lorak (3). Eta banatuko dituzten sariak, berriz, hauek: 180 euro produktu bakoitzeko (barazkiak, frutak, eztia, ardi gazta eta ogia) lehenentzat eta 120

euro bigarren geratzen direnentzat. Horrez gain, aurkezpen onenentzat bi sari (150 euro eta 90 euro) egongo dira eta Eibarko baserrien artean onenari 90 euroko saria emango diote. Eta, aipatutako horietatik kanpora, epaimahaiak 80 euroko aipamenak bana ditzake, egoki ikusiz gero.

Abereen erakusketa

Azokan salgai egongo diren produktuez gain, abereen erakusketa egingo da aurreko urteetan egindakoaren bitartek, kalean erakusteko ekarriko dituzten animaliak Calbeton eta Barria Plaza kaleen artean egongo dira. Besteak beste, behiak, idiak, zaldiak, astoak, ardiak, ahuntzak, txerriak, hegaztiak eta untxiak ikusteko aukera izango da, denak gure eskualdeko baserrietatik (Sumendixa Gokua, Loixola, Mandiola Gainekua, Aritxulueta, Iturrua, Orbe, Mendigoitxi eta Arimendi) ekarritakoak.

Azokarekin batera, San Andres egunerako egitarauan beste jarduerak batzuk ere badaude. Eguerdian, 12:00etan hasiko da aizkolarien txapelketa, bikoteka: gazte txapelketan bi bikotek jardungo dute eta helduenean, berriz, hiru bikotek. Eta ordu berean hasiko da German Meabebasterretxea eta Mikel Mendizabal bertsoariaren eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariaren emanaldia, Untzagan. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariaren kalejira ere eguerdian abiatuko da eta 12:30ean ekingo zaio Plazara Dantzara erromeriari, Kezka Dantza Taldearen eskutik eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariaren musikaren erritimoa. Eta goizeko jarduerak agurtu baino lehen, 13:00ean banatuko zaizkie sariak aurtengo lehiaketetako irabazleei.

Eguerdiko etenaldia amaituta, jaiak arratsaldean jarraituko du: 18:00etan Plazara Dantzara erromeriaren beste saio bat egingo da, Iruñako Gathubi musika taldearekin, Txaltxa Zelaiko karpan. Eta jai-egunerako plana luzatu nahi dutenek horretarako aukera paregabea izango dute, zapatu gauaren aitzakiarekin, Udalak kontzertuak antolatu dituelako: 23:30ean hasiko da EH Sukarra taldearen emanaldia eta, ondoren, Bad Sound taldeak jardungo du zuzenean, Untzagako karpan.

Bezero Guztiendako San Andres ZORiontsuak!

ARKUPE Isasi, 2

Gastro-pub
mm

TEL. 943 70 26 91

Antzaga, 11

Laurel & Hardy Pub

JABE BERRIAREKIN



Aguñaspi
URKIZU, 22 943 128086

lanegunetan 06:00etatik asteburuetan 08:00etatik
Eguneko menua, Menu bereziak,
Gosariak, Plater konbinatuak, Razioak,
Bokatak, Hanburgesak, Pintxoak...

GORA **GURIDI**

SAN ANDRES!



ONGI ETORRI
Jan eta edan

T. Etxebarria, 21
Tel. 943 20 70 07

SOKOA
EIBAR-ONDARRU

birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00

SOKOA

**Gozatu San Andres
ahaztezinekin!!!**

Giro ezinhobea,
musika bikaina...

AMETSA
Gin Bar

Toribio Etxebarrian

Abenduaren 5etik 8ra arte 200 kultur ekitaldi baino gehiago egongo dira Durangoko Azokako zazpi guneeetan, Durangoko Azokako 54. edizioan. Landakoko 264 erakusmahai egongo dira, 405 nobedaderekin. 30 urte eta gero, aurten lehen aldiz berriztuko dituzte erakusmahaiak eta, ondorioz, Landakoko irudia aldatuta topatuko dute Azokara gerturatzen direnek. Egunero 10:30ean zabalduko ditu ateak, 20:00ak arte.

Aurreko astean aurkeztu zituzten aurtengo edizioaren nobedade eta datu orokorrak antolatzaileek, Bartolome Ertzilla Musika Eskolan egindako prentsurrekoan. Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentearekin batera, Azokako guneetako ordezkariak hartu zuten parte ekitaldian: Johana Olabarria (Irudienea), Itsaso Gangoitia (Saguganbara), Arantza Arrazola (Szenatokia), Unai Pelayo (Ahotsenea), Esther Soto (Areto Nagusia), Ihintza Orbegozo (Plateruena) eta Gorka Julio (Kabi@). Prentsurrekoa Musika Eskolan, Landako Gunearen atzekaldean egiteko arrazoia, edizio honetan Musika Eskola espazio berri bat izango dela azalduta ekin zioten aurkezpenari: "Azken urteotan Azokak handitzen ari da eta Durangon zehar zabaltzeko ahaleginetan gabiltza. Horregatik, edizio honetan Musika Eskolan antolatuko dira inaugurazio ekitaldia, Gogoetaren Plaza eta DA! PRO egitasmoa". Esandakoaren arabera, azken ekimen hori ere 54. edizioiko beste berritasun bat izango da. Izan ere, lehen aldiz, Durangoko Azokak Euskal Herriko programatzaile eta musikaren sektoreko sortzaile eta profesionalen arteko topaketa antolatu du, Musika Bulegoarekin elkarlanean. Azokako lehen egunean, goizean zehar izango da.

Hortik kanpora, Landako gunean ere egongo da berritasunik: "30 urtetan lehen



Itxuraldatuta dator Durangoko Azokako 54. edizioa

aldiz Azokak erakusmahaien irudia aldatuko du. Landakoko argazki orokorra, beraz, aldatuko da. Gure asmoa gaur eguneko tendentzietara egokitzea eta erakusmahaiak errazago identifikatzea izan da. Erakusmahaiak egurrezkoak izango dira eta errotulazioetan kolore desberdinak eta ikonoak izango dituzte".

Guztira 264 erakusmahai, 240 handi eta 24 txiki egongo dira, "aurreko urteetan baino eskari gehiago jaso ditugu eta". Produktuei dagokienez, 405 nobedade egongo dira: 273 liburu, 91 disko, 16 aldizkari, 5 ikus-entzunezko eta 20 bestelakoak. Autoekoizleen plazan, bestalde, 14 sortzaile batuko dira, disko, liburu eta ikus-entzunezkoekin.

Antolatzaileen berbetan, "bigarren egunean jakinaraziko da Azokako Sormen Bekaren irabazleak zeintzuk diren. Aurtengo gaia musika da eta, beraz, disziplina horrekin lotura duen proiektu bat izango da sariduna. Era berean, iazko irabazleek euren proiektua, AtopiaRPG euskerazko lehen rol-jokoa, aurkeztuko dute".


Egitarauari dagokionez, Azoka martxan dagoen bitartean 200 ekitaldi baino gehiago egongo dira, "700 metrotan eta 5 minutuko distantzian. Ahotsenean Euskal Herri osoko 111 talde, bakarlari eta idazle batuko dira, zuzenekoan karpan eta solasaldien gunean. Urtero bezala, sortzaile ezagunek sortzaile hasiberriekin partekatuko dute eszenatokia".

ANTONIO ALBERDI ATXA

1. URTEURRENA (2018-XII-8)

"Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"

Bere aldeko URTEURREN MEZA ospatuko dugu abenduaren 8an, 12:30etan, Arrateko santutegian



XIV. Espainiako Barista Txapelketaren finala jokatzeko txartela lortu du Gasteizen bizi den Oskar Gallardo eibartarrak. Goi-mailako kafean espezializatutako profesionalak dira baristak. Samaniego tabernako jabeak denbora gutxi darama kafeak prestatzen, baina buru-belarri prestatu da eta abilezia erakutsi zuen txapelketan. Finala 2020ko apirilean jokatu da Bartzelonako Hostalco azokan.



OSKAR GALLARDO (barista):

“Kafea mimo handiz egiten saiatzen naiz eta jendeak asko eskertzen du”

- XIV. Espainiako Barista Txapelketako finalera iritsi zara. Nolakoa izan da bidea?

Tabernan Cafes Forondarekin lan egiten dudanez, hainbat kafe-ikastaro jaso ditut eurekin eta, ikasi ahala, gero eta jakin-min handiagoa sortu zait kafearen inguruan. Txapelketaren berri izan nuenean buru-belarri prestatzen hasi nintzen.

- Zer egin behar izan zenuen txapelketa horretan?

Lau kafe-huts, bi kafesne eta bi edari espezializatu. Horrela esanda erraza dirudi, baina kafetera bat, kafe-errotat bat, pikamarroa (erabilitako kafe-pastillak ateratzeko erabiltzen dena) eta kafea zapaltzeko bakarrik utzi ziguten eta ordu laurden izan

genuen eskatutakoa egiteko. Kafearen ehotze-puntua neurtzea da gauzarik zailena, momentu jakin batean kafe kantitate jakin bat atera behar delako. Aurretik asko entrenatu nuenez, ondo prestatuta joan nintzen eta, ondorioz, lasaia egin nuen eginbeharra.

- Nolakoa izan zen prestaketa?

Tabernan ahal den moduan ateratzen ditugu kafeak, ez da gauza bera, bizkor egin behar dugulako. Lanean gaudenean zakarragoak gara, baina lehian gauza atseginak egin behar ditugu, ondo zaindu behar dugu egiten duguna eta finagoak izan behar gara. Tabernan jende asko ez dagoenean kafea fin egiten saiatzen naiz, entrenatzeko.

- Finala 2020ko apirilean jokatu da. Hasi zara prestatzen?

Tabernan lanean jarraituko dut, baina opor batzuk behar ditut txapelketa albo batera uzteko. Honorio Garcia entrenatzailearekin gabilzan Gasteizeko hiru lagun sailkatu gara finalera eta bakoitza bere negozioaz arduratu behar da. Gabonen ondoren hasiko gara txapelketan pentsatzen berriz ere.

- Kanporaketan egin zenuten ariketa bera egin behar duzue finalean?

Bai, baina nire ariketa aldatu nahiko nuke. Honorioarekin egin behar dut berba, moldatu daitekeena aztertzeko.

- Beti izan zara kafe zalea?

Karanbola kontua izan da. Ni sukaldaria naiz berez, eta hainbat lanetan ibili ondoren, ez nuela nagusirik nahi erabaki nuen. Nire

kabuz zerbait hasteko gogoan nuen, nire sukaldari dohainak erakusteko asmoz, eta kafetegia hartzeko aukera irten zen. Taberna nahiko txikia da eta sukaldean ezin dut gauza handirik egin, pintxoak (sukaldariak gehien gorroto duguna) eta kitto. Cafes Forondarekin lanean hasi nintzenean 20 urte neramatzan kafetera bat erabili gabe eta eurekin ikasten hasi nintzen. Beti gustatu izan zait kafea hartzea, baina urte eta erdi bakarrik daramat kafeak egiten. Kafea mimo handiz egiten ahalegintzen naiz eta jendeak asko eskertzen du. Nik ere esker onez hartzen ditut bezeroen berba onak.

- Zein da zure kafe gustokoena?

Kafe hutsa eta %100 arabiarra. Hego Amerikako bariatateak gustatzen zaizkit gehien, nahiz eta lehiaketan Etiopiako batekin parte hartu dudana.

- Gasteizen bizi zara, baina eibartarra zara jaiotzez. Zergatik joan zinen?

Lehiaketan eibartarra nintzela esan nuen, argi eta garbi. Hiru urterekin joan nintzen Gasteizera bizitzera, baina eibartarra izateaz harro nago. Familia dut Eibarren eta noizena behin bisitan joaten naiz.

- Gasteizen bizi diren eibartarrekin bazkaria egingo duzu Sanandresetan?

Iaz egon nintzen, baina aurten ez dakit ahal izango dudana. Bazkariko giroarekin maitemindu nintzen iaz.

- Joaten bazara, kafeak zure kontu?

Joaten banaiz jai hartuko dut, baina guztiz!





GIPUZKOA

Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.
Iritsi den etorkizuna.



N K



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN

Miren Martinez (kooperantea):

“Nik zerbait eskaini baino, ikasketa bat izan da niretzat”

Miren Martinez abuztuan joan zen Perura, Egoaizia eta CIPCA Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) Piura eta handik hiru orduara dagoen mendilerroan dituzten proiektuak gertutik ezagutu eta ahal den heinean laguntzeko. Hiru hilabete ondoren, azaroaren 5ean, etxera itzuli da eta esperientzia eta jakintza asko ekarri ditu motxilan. Beste mundu bat ezagutu du Perun, alboratu ezin den errealitatea.

- Zein izan da zure eginbeharra Perun?

Kooperazio proiektu bat ezagutzea eta ahal nuenean laguntzea zen nire betebeharra. Eta, horrez gain, euren kultura, antolaketa politiko eta territoriala (hemen goarekin alderatuta oso ezberdina), eta beste hainbat gauza ezagutzea. Egoaizia eta CIPCAREN proiektuak hiru osagarri ditu (hezkuntza, haurtzaroa eta ingurunearen kudeaketa) eta han dauden bost langileekin arlo guztiak lantzen ibili naiz, guztiak direlako interesgarriak. Adibidez, El Naranjo izeneko toki batera joaten ginen herritarrei hondakin solidoen bereizketarako programa azaltzeko. Honen bitartez, hondakinak banatu egiten dira eta birziklapenaz arduratzen den enpresa bati saltzen zaizkio. Horrela, gutxi bada ere, diru pixka bat lortzen dute. Komunitateak eragile bat aukeratzen du familiak kontzientziazteko eta birziklatu behar dena zer den azaltzeko. Jendea kontzientziaztea lortu dute eta egiten duten auzolana oso polita iruditzen zait. Baina dena ez da polita. Interes politiko asko dago eta, horren ondorioz, proiektuak ez dira aurrera ateratzen batzuetan.

- **Motza egin zaizu hiru hilabeteko egoaldia?**



Bai. Bi urteko proiektua da eta 2018an hasi zen. Beraz, proiektu amaieran iritsi naiz eta atzean dagoen lan handia nolakoa den ikusi dut. Langileak Piurakoak dira eta proiektuak Piuratik hiru orduara daude, baina zapatu eta domeketan lanean jarraitzen dute. Demaseko lana egiten dute.

- **Perura joan aurretik prestatu egin zinen?**

Proiektuaren gainean gauzak irakurri nituen eta Egoaiziako Liernirekin ikastaro bat egin nuen kooperantea izatea zer den jakiteko. Nik zerbait eskaini baino, ikasketa bat izan da niretzat.

- **Saso nahasia bizi da Hego Ameriketako azkenaldian. Zerbait igarri duzu?**

Han nengoenean Martin Vizcarra Peruko presidentek kongresua itxi

zuen eta hainbat martxa egon ziren. Heldu berria izanik, zaila zen ondo jakitea zer gertatzen zen.

- **Eurentzat berebizikoa da Egoaizia bezalako GKEen laguntza?**

Laguntza ekonomikoa behar dute guztienez, ez dutelako baliabiderik. Egoaizia eta CIPCAREN lan egingo ez balute, ez luke inork egingo.

- **Zure ustez zeintzuk dira han dituzten behar handienak?**

Hezkuntzaren kalitatea, ur-sistemak eta birziklapena hobetzea.

- **Zer egin daiteke hemendik laguntzeko?**

Guztienez, arazo sozialen inguruan geure burua sentsibilizatzea eta Egoaizia bezalako proiektuak laguntzea.

- **Zer ikasi duzu esperientzia honetan?**

Asko harritu nau hango jendearen jarraitzeak. Gauzak ondo irteten ez baziren ere, pozik eta motibatuta jarraitzen zuten beti. Oso lan neketsua egiten dute eta oso jarraitze positiboarekin egiten diote aurre.



Empty Files taldearen kontzertuarekin hasiko dira

EIBARKO MUSIKARI GAZTEEN ELKARTEAK (EMGE) KUDEATZEN DITUEN LEGARREKO MUSIKA LOKALTATIK hamaika talde pasatu dira eta, horien lana ezagutzera emateko asmoz, Domeka Kulturalak izeneko ekimena ipiniko dute martxan abenduan, domeka arratsaldeak zuzeneko musikarekin girotuko

du ten hiru kontzertu antolatuta: asteburu honetan, abenduaren 1ean, Empty Files taldeak joko du Portalean, 19:00etatik aurrera. Abenduaren 22an, berriz, A Tutti Plain taldearen txanda izango da eta abenduaren 29an, berriz, Ni Neu musikariak eskainiko du emanaldia. Kontzertu guztiak 19:00etan izango dira, Portale-

DOMEKA KULTURALAK



an, eta sarrera doan izango da. Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak ia 25 urte daramatza musikarekin lotutako ekintzak herrian sustatzen eta Legarrekoko musika sorkuntzarako instalazioen kudeaketaz ardura-

tzen. Udalak bertan dituen lokal horietan, entseguak egiteaz gain, askok maketak eta diskoak grabatu dituzte. Gehienak Eibarko musikariek osatutako taldeak dira eta oso estilo anitzeko musika sortzen dute.

Eguaztenean jokatu da Debabarreneko Euskararen Ginkanaren finala

ABENDUAREN 4-AN IZANGO DA DEBABARRENKO EUSKARAREN GINKANAREN 1. EDIZIOKO FINALA, Coliseo antzokian, 12:00etan. Kutxa Ekogunearen eta Euskaltzaleen Topagunearen eskutik DBH-ko ikasleentzat antolatu den lehiaketan lau proba egiteko lehia bizian ibili dira 21 talde, eta horietatik lau baino ez dira pasatuko lehiaketaren azken fasera, aurretik jokatutako fasean puntu gehien lortu dituzten lau taldeak hain zuzen ere. Horietako hiruk zuzenean lortu dute finalerako txartela: Debako Martintxo Arrantzalek (45 puntu), Eibarko Ginkanklinak (44 puntu) eta Soraluze-ko Soragarriak (44 puntu). Hiru horiekin batera, 4. postuan bi talde geratu dira berdinduta, 43 punturekin: Debako Sonakai eta Eibarko CD Urki. Antolatzaileek azaldu dutenez, "Coliseoko ekitaldian, finalaren aurretik erabakiko da bi horietatik zein izango den 4. talde finalista". Hori erabaki eta gero, lau talde finalistak arituko dira lehian bertan, jendearen aurrean, eta ekitaldiaren amaieran jakingo da Debabarreneko Euskararen Ginkanaren 1. edizioa-



ren irabazlea zein den. Irabazleentzat sari potoloak banatuko dituzte: lehen postuan sailkatzen den taldeak 800 euroko balioa duen saria jasoko du eta bigarren taldeak, berriz, 200 euroko balioa duen saria (biak Eibarren Akebaik eta Eibarko Udalak emanak); eta hirugarren eta laugarren sailkatzen diren taldeentzat, berriz, 100 euroko erosketa-txartel bana emango du Eibar Merkataritza Gune Irekiak.

BOLINTXO
OKINDEGIA
GoZOTEGIA

Eguneroko
ogia

☎ 943 20 40 66 (Errebal) ☎ 943 20 36 06 (Legarre)



Javier Martin doktorea
Aurpegi-masailtako Kirurgilaria

- AURPEGIA GAZTETZEKO KIRURGIA
- AURPEGIKO KIRURGIA ESTETIKOA

KONTSULTAK: Centro Médico Eibar
KIRURGIAK: Policlínica Gipuzkoa

679 334 371
943 120 200



Iñaki Zubillaga

Errobiren diskoa gaur egun oraindik salgai dago Durangoko Azokako mahaietan; erosi eta gozatu, ez zarete damutuko-eta. Euskal Herriko historia da

“Ametsaren bidea”

Orain dela 40 urte kaleratu zen “Ametsaren bidea” diskoa, euskal musikako erreferente berezien arteko obra. Maisulan horrekin Errobik ate ikaragarria zabaldu zuen maila tekniko, musikal eta artistikoan, baina sei urteko elkarlana ere amaitu zuen.

40 urte, buuaahhh!!! Oraindik, lau abesti horiek entzuten ditudanean ez dut sentitzen hainbeste denbora pasatu denik. Sasoi hartan disko hori rock musika besterik ez zen niretzat, abizenik gabe. Gaurko katalogazioarekin badakigu ‘progresiboa’ dela.

Gitarra, baxua, bateria eta ahotsa, tresna arruntak rock munduan, baita saxofoia, txirula, alboka... Dena nahastuta... Folk-rock izan daiteke... soinu zaharrak eta distortsioa...

Hala ere, hitzen aldetik denbora berria hasi zuen taldeak. Lehenengo bi diskotan Daniel Landart-en bertsoak musikatu zituzten, orain Anje Duhalderen testuak. Arriskatu egin ziren lan horrekin: lau kantuz bakarrik osatutakoa da; eta horietako bi 17 eta 13 minutukoak dira. Disko horri esker euskal musikako mugak gainditu zituzten: Espainiako eta Europako prentsak eta irratiek kritikak eta erreportaiak argitaratu zituzten. Eta lurrikara hori iparraldetik etorri zen, haize freskoagoak ekarri zioten hegoaldeko giro ilunari, Franco hilzorian.

Errobi taldea bikote baten egitasmoa izan zen: Anje Duhalde eta Mixel Ducau lapurtarra. 1975ean grabatu zuten Donibane Lohitzunen “Errobi” diskoa, euskerazko lehen rock diskoa.

Kantaldi politikoen sasoia zen, mezua musikari nagusitzen ziztaionekoa. Baina, hitzak kutsu politiko handikoak izan arren, Errobiren agerraldiak kontzertuak ziren, ez mitin politikoak. Errobiren bigarren diskoa “Gure lekukotasuna” ia lehenengoarekin batera eman zen ezagutzera, aurrekoaren ildo jarraituz.

Kriston arrakasta izaten ari zirenean, “Bizi bizian” Euskal Herrian zuzenean grabatutako lehen diskoa argitaratu ondoren, Errobik lehen aroa itxi zuen eta, lehen azpimarratu dudana bezala, bai hitzen karga politikoaren aldetik, eta baita konposizio kontzeptuaren ikuspuntutik, norabide nabarmena hartu zuten. Lau taldekidek hartu zuten parte musika asmatzen.

“Ametsaren bidea”-k urteko diskorik onenari emandako saria jaso zuen Durangoko Liburu eta Disko Azokan; hala ere, nahiko oihartzun txikia izan zuen, aurreko biekien alderatuta.

Gaur egun oraindik salgai dago diskoa Durangoko Azokako mahaietan. Aurten bai, erosi eta gozatu. Ez zarete damutuko. Hori ere Euskal Herriko historia da-eta...



Aitor Buendía

Beharrezkoa egiten da formula berriak aurkitzea giza faktorea ez dadin desagertu gure soroetatik: guztion onerako landu, berriztu eta hezi

Ortuzain barik, ez dago gastronomiarik!

Pintxo, plater, gastronomiaren mila eta bat plazer, argazkitxoak Facebook-en, “gustatzen zait” Instagram-en... handik eta hemendik... baina giza-faktorea desagertzen dihardu sorotik. Ez dago belaunaldi-erleborik “lehen” sektoretzat izendatu bai, baina lehenasunezko jotzen ez dugun horretan, bertan lan egiteko pertsona gehiago erakartzeko plan berezirik ez dagoen moduan.

Gainera, irauten duten lur-esplotazioetan ongari inorganikoak, erregai fosilak eta herbizidak dira nagusi, lurrak degradatuz, emisioak sortuz eta urak kutsatuz... Panorama horren aurrean, Slow Food-ek funtsezko erronkatzat jo zuen “Elikagaia erdigunean, Lurrera bueltatuz” bere dokumentu estrategikoa. Gakoa honako galderan dago: “Zeinek landuko ditu gure jakiak?”.

Beraz, beharrezkoa egiten da formula berriak aurkitzea joera horrekin hausteko, eta Slow Food Arabak erabaki irmoa hartu du lur eta mahai gainean, bisio hirukoitzetik abiatuta (Guztionezko landu, berriztu eta hezi), bide horretan lagun dezaketen proiektuak sustatzeko teknologiaz jabetu eta praktikatzeko.

Abenduaren 10ean eta 12an Gasteizko Zabalana Zentro Zibikoak jendeari irekitako egitaraua hartuko du, “Terra Madre Day”-

ren esparru barruan, egun bietan 18:45etik aurrera: 10ean, martitzenean, No-Till Teknologia, “Granja Ridgedale, cultivando, innovando y educando para el Beneficio Común”, Richard Perkin- sen eskutik (aurkezpena eta itzulpenak: Ana Digon eta Aitor Buendía). Eta 12an, egunean, Dastamen Laborategia, “Life Regen Farming” proiektua, Neiker-Tecnaliaren eskutik (Roberto Ruiz eta Nerea Mandaluniz). Eta Antonio Gomez Reinaren “Granja La Solanilla”.

Eta, behin urte berrian sartuta, Eibarrek “Slow Food” bideko beste jardunaldi bat hartuko du, Eibarko Udalaren eta Debemenen laguntzarekin, orain dela urtebete Andoni Luis Aduriz eta beste protagonista eta entitateekin batera egin zuen moduan. Otsailaren lehenengo egunetan eskola-umeentzako Dastamen Tailerak izango ditugu, gure ekoizle txikien lana ikustarazteko eskualdeko hainbat sukaldariek euren produktuekin prestatutako “Slow Food Afarria” hartuko duen topaketarekin batera. Bere sasoian jakinaraziko dizkizuegun errekonozimenduak ere egingo dira bertan. Guztia, jakina, gure eskualdearen eta, bereziki, Debabarrena zaintzen lanean diharduten gure baserriar txikien alde.



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa...

Eskuartean daukazun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore honetako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.



www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29



San Agustin. Eibar Ref. 1232

3 logela eta 2 komun. Guztiz berriztua.
2 trastelekurekin.
320.000€ 2018/00137383E



Sostoa-tarren. Eibar Ref. 1673

Logela 1. Altzariekin.
Igoailua 0 kotara.
140.000€



Urki. Eibar Ref. 1677

2 logela. Balkoi paregabea.
Igoailua jarriko da.
70.000€



San Kristobal. Eibar Ref. 1647

Guztiz berriztua.
Logela 1, izatez 2 zituen arren.
80.000€ CEE/CAPV/2019/00163447



Txaltxa-zelai. Eibar Ref. 1577

3 logela eta 2 komun. 94 metro.
Kalefakzioa, igoailua eta trastelekua.
Garajea aukeran. 255.000€ CEE/CAPV/2019/00157559



Barakaldo. Eibar Ref. 1604

3 logela eta 2 komun.
Igoailua eta kalefakzioa gasarekin.
215.000€ CEE/CAPV/2019/00155595



- **Gestio inmobiliarioa:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **Finantziatorako Bidea:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **Informazio Pertsonalizatua**



Toribio Etxebarria, 1
943 20 03 58
fincas@euki.com
www.euki.com



API 323



TORIBIO ETXEBARRIA Galdetu
5 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta komuna. Igogailuarekin.
Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV/2017/00100/250E



FERMIN CALBETON Galdetu
100 m². 3 logela, egongela-jangela, sukalde-jangela, despentsa eta bi komun. Txukuna. Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV/2019/00163462 E



BARAKALDO Galdetu
80 m². 3 logela, egongela, sukaldia eta bi komun. Barrera arkitektonikorik gabe. Eraikinean garajea izateko aukera.
Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00156784 E



JUAN GISASOLA Galdetu
80 m². 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Egoera onean. Kanpora begira. Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV/2019/00156728 E




UNTZAGAKO DORREA Galdetu
105 m². Ileapaindegirako instalazioak dituen lokala. Edozein erabilerarako aproposa. Aukera askorekin. Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00162549 E



URKIZU PASEALEKUA Galdetu
80 m². 3 logela, egongela-sukalde-jangela eta komuna. Egoera ezinhobea. Kanpora begira eta eguzkitsua.
Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00156733 E



TORIBIO ETXEBARRIA Galdetu
80 m². 3 logela, egongela, sukalde, bainugela eta komuna. Konpontzeko. Aukera asko ditu. Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV/2019/00164774 E



ROMUALDO GALDOS Galdetu
60 m². 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Konpontzeko. Kanpora begira.
Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00155420 E



ELGETA-PLAZA Galdetu
115 m². 3 logela, egongela-jangela, sukaldia eta bi komun. Estreinatzeko. Kalitate handiko materialekin konponduta. Igogailua eta kalefakzioa.
Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00164632 E

GARAJE eta LOKAL
KOMERTZIAL ETA INDUSTRIALEN
Salmenta eta alokairua



Etxebizitzak eta lokalak saldu eta/edo alokatzeko, nahitaezkoa da higiezinaren etiketa energetikoa lortzea. Gure bulegoetatik pasa eta informazioa emango dizugu.



Amaña- Karlos Elgezua 60.000 €
Konponduta. 2 logela.
Inbersorentzako aproposa.
Inguru lasaia. Sarbide publiko
onak. Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV72019/00160677 E



Urkizu 225.000 €
Etxebizitza altua eta
eguzkitsua, 2 terrazekin.
Konponduta. 3 logela, 2
komun, egongela eta sukaldea.
Etiketa energetikoa: 2019/RTE00263304



Wenzeslao Orbea 89.000 €
Erdi-konponduta. Bista ederrak.
2 gela, egongela, sukaldea eta
komuna. Etiketa energetikoa:
2019RTE00429773



Amaña-Ziriako Agirre 90.000 €
Erdi-konponduta. 2 logela,
egongela, sukaldea, balkoia
terrazarekin eta komuna.
Kalefakzioa eta ganbara. Etiketa
energetikoa: CEE/CAPV/2018700123489 E



T. Etxebarria 235.000 €
80 m². Erdigunean.
konpontzeko.
Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV/2019/00164774 E



Ipurua 90.000 €
Konponduta. Leku lasaia.
2 logela, egongela, sukaldea,
komuna. Ganbara. Etiketa
energetikoa: 2019RTE00459300



Legarreko dorrea 164.000 €
Bista ederrak. Terraza.
3 logela, egongela, sukaldea
despentsarekin, komuna.
Etiketa energetikoa: CEE-0505/150



Juan Antonio Mogel 135.000 €-tik
Ipurua aldea. Konpondutako
eta erdi-konpondutako
etxebizitzak. 2/3 logela,
igogailua, kalefakzioa eta
ganbara. Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV/2019/00164765 E



Julian Etxebarria 160.000 €-tik
Etxebizitza handiak
erdialdean, 3/4 logelakoak.
Konpontzeko.
Etiketa energetikoa:
2019RTE00381095




Urkizu-Barakaldo 154.000 €
Ezinhobea. Terraza ikusgarria
hegoalderuntz. Garajea eta
trastelekua. Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV/2019/00165983 E



Jardiñeta 175.000 €
Etxebizitza altua eta
eguzkitsua, hegoaldera
begira. Igogailua kaleraino.
Etiketa energetikoa:
2019RTE 00262546



Polonia Etxebarria 110.000 €
Konponduta. Igogailua eta
kalefakzioa. 2 logela,
egongela, sukaldea eta
komuna. Garaje itxia aukeran.
Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV/2019/00158384 E



San Kristobal 29.900 €
Aukera ona. Konpontzeko.
24 m²ko etxebizitza.
Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV/2018/00116010 E



Barrena 60.000-125.000 €
Konpontzeko eta
konpondutakoak. 2/3 logela.
Igogailuarekin/barik. 60.000
eurotik 125.000ra. Etiketa
energetikoa: CEE/CAPV/2019/00164945 E



Arratebide 99.000 €
Erdi-konponduta. Erdigunean.
2 logela, egongela, sukaldea,
komuna. Kalefakzioa eta
trasteroa. Etiketa energetikoa:
CEE/CAPV/2019/00155579 E



3 LOGELAKO 16 ETXEBIZITZA

trastero eta garajearekin

- Haizatutako fatxada, isolamendu indartsua
- Oso argitsuak, leiho handi eta panoramika zabalekin
- Beste etxebizitzik ez inguruan
- Gaur egungo diseinuarekin
- Kalitate handiko materiala



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria



Arragueta, 2 bis B-behea
943 20 08 60

■ salerosketak
■ errentamenduak
■ balioztatzeak

agencia
inmobiliaria
Juaristi
A.P.I.: Rosa Juaristi

rosa@inmobiliariajuaristi.com
www.inmobiliariajuaristi.com

Higiezin eraginkortasun energetikoa, kontsumitzaileen eskubidea

dp donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAN BAKARRIK

Isasi, 16
EIBAR

M. Valdespina, 12
ERMUA

www.donpiso.com 943 82 05 10 donpiso@donpiso.eibar.com 618 769 839

Zure etxea saltzeko
modurik azkar, errez
eta eraginkorra

Higiezin eraginkortasun energetikoa higiezin funtsezko ezaugarria da, erkidegoko eta estatuko araudiaren arabera, eta, ondorioz, kontsumitzaileek informazioa jasotzeko eskubidea dute, eta higiezin agentziek (fisikoek edo birtualek), berriz, informazioa emateko betebeharra. Beraz, derrigorrezkoa da etiketa energetikoa etxebizitza bat saldu edo alokatzeko egiten den edozein merkataritza-jarduerarekin batera aurkeztea. Adibidez, besteak beste, higiezin agentzien erakusleihoetan eta Interneteko hainbat ataritan, saldu edo alokatu nahi den higiezinaren etiketa energetikoa agertu beharko da.

HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA

Errebal, 20

Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com

Etiketa energetikoak, besteak beste, eraikin baten kalifikazio energetikoa erakusten du. Kalifikazio energetikoaren eskala zazpi letra korrelatiboak dira. A letratik (energetikoki eraginkorragoa den eraikina) G letrara (energetikoki eraginkortasun txikiagoa duen eraikina). Gainera, beste datu batzuen artean, urteko energia-kontsumoari (kWh/urte eta kWh/m²) eta urteko CO₂ kontsumoari (kgCO₂/urte eta kgCO₂/m²) buruzko informazioa ere jasoko da.

Abenduaren 3ko Harixa Emoten saioan egongo da gaur egungo euskal literaturaren izen handi bat. Izan ere, irakurleek Harkaitz Cano idazlearen bisita izango dute hainbat sari eta kritika bikainak jaso dituen 'Fakirren ahotsa' liburuaren inguruan solasaldia egiteko.

HARKAITZ CANO: "Errealitatea fikzioaren tresnen bidez baino ezin da kontatu"



- Imanol abeslaria da 'Fakirren ahotsa'-ren ardatza. Zergatik bera?

Imanol Larzabal tximistorratz antzeko bat da. Oso leku eta une seinalatuetan egon zen: ETAren hastapenetan frankismoaren kontrako fronte kulturallean, Iparraldean errefuxiatua, Parisen exilioan, Sarriren ihesean kantari Martutenen, Yoyesen hilketaren salatzeko jaialdian abesten... Gure historia garaikidearen zati garrantzitsu bat kontatu daiteke haren bidez. Eta historia horrekin batera, bere kontraesanak eta gureak jorratzen saiatu naiz, giza alderdiari arreta berezia jarritz.

- Fakirra goitizena jaso zuen. Zergatik goitizena hori?

Gela berean lo egiten zuen militantzia-ko lagun batek esan ei zion behin, goizean goiz luze-luze ohean erdi biluzik ikusi zue-nean: "Fakir bat ematen duk txima horiekin eta horrela etzanda!".

- Fakirra izateko, zerbait berezia izan behar du ezertarian. Zerk egiten zuen berezi Imanol?

Bere ondoan kantatu zuen abeslari batek esan zidan harekin abestea "arrano baten hegalean babesean eramana izatea bezala" zela. Karlos Gimenez piano-jotzailearekin batera, geure iruditeria herrikoian iltzaturik geratu diren doinu ederrenetako batzuk sortu zituen.

- Nolako ahotsa du Fakirrak?

Baritono ahots ikaragarria zuen eta, batez ere, sena handia poemak aukeratu eta bere egiteko. Bitxia da, kanturako zaletasuna etxetik jaso arren, Parisera heldu zen arte ez zen bere ahotsaren ahalmenaz

gutziz kontziente izan. Bertan kantu-eskolak hartu zituen ezertarian ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

- Zein puntutaraino uzartu daitezke fikzioa eta errealitatea liburu batean? Erreza da oreka aurkitzea?

Errealitatea atzemanezina da. Fikzioaren tresnek, ordea, benetakotasuna ahalmen-tzen dute. Errealitateak ez du zertan koherente izan, baina fikzioak bai. Bizitza oso bateko une jakinen bidez osotasun espekulatibo bat sortu behar da, esate baterako, pertsonaia bat baino gehiago bakarrean sintetizatuz, elipsi handiak eginez, etab. Iparramerikako literaturak eta zineak etengabe nahasten dituzte existitu ziren pertsonaiak eta asmatuak, ohituta gauzkate, eta ez digu horrek arazorik eragiten. Besterik da guk egiten dugunean geure gertuko historiako pertsonekin, hor estuagoak bilakatzen gara.

- Fikzioak errealitatea kontatzeko balio du?

Oso esaldi maiztua da "errealitateak fikzioa gainditzen duela". Agian egia da, baina fikzioa errealitatearen kargu egiten da. Errealitatea, fikzioaren tresnen bidez baino ezin da kontatu. Kazetari batek ere erabiltzen ditu tresna horiek, beste era bate-ra izan arren.

- Idazten duzunean, liburuak izango duen harreraren pentsatzen duzu?

Idazten dudanean ez dut sekula harreraren pentsatzen. Baina egia da, 'Twist'-ekin batera, irakurleek gehien estimatu duten liburua izan dela hau ziur aski, eta esango nuke gure historiako gertaera esanguratsuak jorrotzeak izan duela horretan zerkusia, jende askorentzat testuak emozio eta oroitzapenen tranpolin bezala jokatu duelako.

- Ate joka dugu Durangoko Azoka. Bertan izango zaitugu?

Bertan izango naiz, aurtan bi komikirekin: 'Antzara eguna', Adur Larrea marrazkilariekin eta 'Amets alokatuak', Iñaki Holgadoarekin elkarlanean. Gainera, Berri Txarrak taldearen 'Berba eta irudia' argazki liburuko testua aurkeztuko dugu eta baita Zart kolektiboa ere.

- Eibarko solasaldian irakurleen ikuspuntua jasoko duzu. Irakurleen azalean jartzen zara idazteko orduan?

Esan dezagun buruan irakurle talde birtual bat daukadala, 'buru batzarra' deitzen diot, eta hor daude miresten ditudan idazleak, zenbait lagun etab. Batzuetan pentsatzen dut "Hau gustatuko ote litzaioketue urlari?", edo "Nola aterako ote litzateke ataka honetatik halako idazle?", baina azkenean guztia jolas bat da. Irakurleen iritzia eta inpresioak beti dira estimagarriak. 'Fakirren ahotsa' nobelan modu berezi batean, jende askok Imanol Larzabali buruzko pasadizo edo oroitzapenak kontatzen dizkidalako tertulia guztietan. Bigarren parte bat idazteko adina kontu dakizkit orain.

"Gure historia garaikidearen zati garrantzitsua kontatu daiteke Imanolen bidez"

Domekan zabaldu zuten Portalean "Exfibar 50. urteurren seilu erakusketa". Mende erdia bete duela eta, aurtengo zigilu-marka Arrate Filatelia Elkartearen omenezkoa da eta Luis M^o Dominguezek sortu du. Ohikoa den moduan, inaugurazio egunean egon zen eskuragarri. Arrate Filatelia Elkarteak urtero San Andres jaien inguruan antolatzen duen erakusketa domekara arte egongo da zabalik, ordutegi berezian: gaur eta bihar, 18:00etatik 20:00etara eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara (azaroaren 30ean, San Andres eguna dela eta, itxita egongo da).



Arrate Filatelia Elkartearen Exfibar erakusketa mende erdira ailegatu da

Mende erdia beteko du Arrate Filatelia Elkarteak datorren hilean. Izan ere, elkarteak 1969ko abenduaren 15ean Kulturaleko lokaletan egin zen bileran sortu zuten, "Eibarresa" izenarekin. Lehen urtean 37 bazkide zituen elkarteak eta, zaletu gehiago batzen joan ahala, elkarteak ere handitzen joan zen eta horrela animatu ziren lehen seilu erakusketa egitera: Ignacio Zuloagari eskeinuta prestatu zuten, margolariaren 100. urteurrenean. Ondoren, elkartearen izena aldatu zioten eta harrezkero Arrate Filatelia Elkarteak biltzen ditu gure herriko filatelistak.

Lehen erakusketa horrek izan zuen arrakastarekin animatuta, urtero antolatzen dute Exfibar erakusketa, urte bakoitzerako erakusgaia ondo aukeratuta: Arrateko santutegia, Eibarko udaletxea, armagintza, Urkizuko iturria, Eibarko armaria, San An-

dres parrokia, Jacinto Olabe margolaria, Romualdo Galdos, Karlos Elgezua margolaria, Toribio Etxebarria, Indalezio Ojangueren, Arrateko Txirrindularitza igoera, Mercedes Kareaga, Eibarko raketistak, herri kirolak, Eibarko Bizikleta, Armen Museoa, Klub Deportiboa, Arrate Irratia, Eibarko tren geltokia, Armaginen Elkarteak, Txistulari banda, Eibarko damaskinatua...

Hasierako urteetan, 1969tik 1975era bitartean udaletxean zegoen Udal Liburutegian izaten zen erakusketa. 1976az geroztik, berriz, udaletxe zaharrean zegoen erakusketa aretoan hasi ziren antolatzen eta 1996az geroztik Portalean egiten da. Erakusketarako tokia ez ezik, elkartearen egoitza ere behin baino gehiagotan tokiz aldatu dute 50 urte hauetan: hasieran Arrate Kultur Elkarteak lagatzen zien lokalean egiten zituzten bilerak, baina,

1983ko martxoaren 13an, Udalak Txaltxa Zelaian, frontoi zaharreko eskoletan eskaini zien lokalera joan ziren. Handik urte batzuetara, 1987ko maiatzaren 24an berri ere lokalez aldatu ziren, Pagaegi kaleko 3. zenbakira, eta gaur egun ere hori da elkartearen egoitza.

Erakusketa gehienak Eibarko historiarekin edo kulturarekin lotutako motiboren batean oinarritu dira eta horren adibide dira horietako bakoitzerako atera dituzten zigilu-marka bereziak. Horietako asko aurtengo erakusketarako kaleratu duten "Exfibar 2019", ia 100 orrialdeko liburuxkan ikus daitezke, Arrate Filatelia Elkartearen historiari eta jardunari lotutako argazki eta testuekin batera. Argitalpena, orain arte kaleratu dituzten beste liburuxka guztiekin batera, Ego Ibarra batzordearen webgunean dago eskuragarri, PDF formatuan.

MUGIKA

Baimendutako Harategia

Gure Kalitatea

Giokela

Urkizu, 18
943120194

HARATEGIA

ONDO PASA Sanandresak!!!

ESPEZIALITATEAK: *Odolkiak / Plater prestatuak*

Bezero Guztiendako San Andres ZORiontsuak!



ESKARNE 
JATETXEA

- eguerdiko menua
- menu bereziak

Arragueta 4 Tel. 943 12 16 50 20600 **EIBAR**



**Ondo pasa
San Andres
jaietan!!!**

*eta ondo baino
hobeto gurekin
Untzaga, San*



Ego gain, z/g **943 20 67 53**



ETXEZ-ETXEKO ZERBITZU BERRIA
FOXTER-ek bere gastronomia bikaina etxera eramaten dizu, igande-ostegun bitartean, 20:00etatik 22:30era.

Animatu zaitetz eta deitu!!!

razioak • sandwichak •
hanbursesak • bokatak • mexikarrak

Plaza Barria, 6. Tel. 943 121 255

EZDOK 

HEMENGO ETA HANGO GARAGARDO ARTISAUAK.
MUSIKA ETA GIRO JATORRA

Toribio Etxebarria 18, Eibar

Toribio Etxebarria, 18 - 1.



**CASINO
ARTISTA
EIBARRES**

**Enkarguak
hartzen
dira**

Telefona: 943 20 71 90

**GURE
LEKU**

Isasi, 3 EIBAR **943 20 71 89**

Etorri probatzera
hanbursesak
sandwichak
kazuelital
eta gero
tragotxo bat

**GORA
Sanandresak!!** *Gosariak*
Bokatak
Pintxoak
Tragoak

Trinkete
EIBAR 1957


Ospatu gurekin!!
Errebal, 24 **943 70 13 23**



KATU
k a l e

"Gure musika euren bizipenekin lotzen dutelako miresten gaituzte zaletuek"

MIKEL GOROSABEL
"NORTON"
 (E.H. Sukarra)



E.H. Sukarra taldeak herrikideekin ospatuko du etzi bere 30. urteurrena. Eibartar askoren soinu-banda osatzen duten abestiak zuzenean joko dituzte Untzagan 23:30etik aurrera, San Andres egunari amaiera borobila emateko. Mikel Gorosabel 'Norton' abeslari eta gitarra-jolearen eskutik Eibarko talde enblematiko honen historiari buruz egin dugu berba.

- 1989ko urrian lagun batzuk Txontako lokal batean batzen dira musika jotzeko. Zerk piztu zuen gogo hori?

Txikitan musika ikasketak egin nituen, pianoa jotzen nuen, eta nire gauzatxoak egiten nituen pianoarekin eta abesten. 13 urte nituenean gitarra klasikoa oparitu zioten arrebari, eta etxean bakarrik geratzen nintzenez edo institututik txikarra egiten nuen gitarra jotzen nuen. Hiru akorderekin hasi nintzen, baina denbora gutxian aurreakada eman nuen eta kantuak sortzen hasi nintzen. Lagun batzuekin Sex Pistols entzuten genuen etxean. Batek bi makilekin butaka jotzen zuen bateria izango balitz bezala eta nik gitarra jotzen nuen. Gero, proiektu serioago bat hasi genuen eta lagun baten lokalera joaten ginen entseatzera, gitarra klasikoarekin eta bateria lanak egiten

zuten kubo batzuekin. Nahiko prekarioa zen. 19 urterekin Ingalaterrara joan nintzen zazpi hilabeterako eta rock talde bat sortzeko asmoarekin bueltatu nintzen. Ingalaterrara joan aurretik nire anai Aitorrekin musika jotzen nuen, bera gitarra ikasten zebilelako, eta Ingalaterratik bueltan sorpresa hartu nuen berak Su Ta Gar taldearen sorrera nahiko bideratua zuelako. Kontzerturen bat jota zuten ordurako baita ere. Borxak (Arrilaga) Legarren zuen etxabe batean entseatzuten zuten eta ikusi nuenarekin harriritu geratu nintzen. Demaseko maila zuten. Orduan, taldea sortzeko gogo handitu zitzaidan, eta Cesar eta Facundo lagunekin Su Ta Gar-ekoei Txontan duten lokala eta musikatresna batzuk eskatu eta horrela hasi ginen.

- Nondik dator E.H. Sukarra izena?

Taldea sortu baino lehenagotik nuen izena pentsatuta. Punk and Disorderly diskoan, punk talde ingeles baten bilduma batean, U.K. siglak asko erabiltzen ziren (U.K. = United Kingdom, Erresuma Batua) eta ideia hori hona ekarri nahi nuen, U.K. E.H.-gatik aldatuz. Bestetik, taldearen izena Sukarra izatea pentsatu nuen, eta biak baturik E.H. Sukarra geratu zen.

- Zer gogoratu duzue zuen lehen kontzertuaz?

1990ko uztailan izan zen, Sorluzeko gaztetxean. Oso bizia izan zen eta jendeak bikain erantzun zuen. Gure ekimenarekin

harriritu geratu ziren. Momentu distiratsua izan zen. Ezjakintasuna genuen, baina demaseko grina.

- Proposamen musikal berria eskaintzen zuen sasoi hartan E.H. Sukarrak?

Su Ta Gar-ek demaseko ezustekoa eman zuen heavy musikaren ildotik, eta guk joera punkyagoa eta melodikoagoa genuen.

- Urte gutxitan demaseko arrakasta izan zenuten. Nola kudeatu zenuten hori?

Nahiko modu axolagabea. Lehen kontzertuaren ondoren, 1991an, Hilbehera tabernara jotzera etortzen ziren talde batzuekin kontaktua egin genuen eta eurekin Berlinera trenez joan ginen maketa bat grabatzera. Hamar egun inguru egon ginen Berilinen eta, zortzi kantuko maketa grabatzeaz gain, zazpi kontzertu eskaini genituen. Oso sasoi produktiboa izan zen. Eibarrera itzuli ginenean Euskadi Gazteak maketa lehiaketa antolatu zuela jakin genuen eta ia azken egunean maketa bidali genuen, inongo prentesiorik gabe. Irabazi egin genuen eta atak zabaldu zitzaizkigun. Maketa horrekin eta IZ estudioan grabatu genituen beste sei abestirekin gure lehen lana irten zen, 'E.H. Sukarra', Esan Ozenkiren eskutik 1992an.

- Taldearen lehen hamarkada (1992tik 2002ra) oso emankorra izan zen (sei disko), baina hurrengo hamarkadan ez zenuten disko bat ere kaleratu. Zergatik?

Bigarren hamarkadan geldiduna egin ge-

nuen diskoei dagokienez, baina guk beti jarraitu izan dugu jotzen. Taldea laga genuela aipatu izan zen. "Oraindik jotzen duzue?", esan izan digute. Sasoi batzuetan gehiago jo dugu eta beste batzuetan gutxiago, baina guk inoiz ez dugu utzi. Bigarren hamarkadan ez genuen ezer grabatu eta jendeak ahaztu egin gintuen.

- Gorabeherak gorabehera, 30 urterekin taldeak bizirik jarraitzen du. Zein da sekretua?

Musikarekiko zaletasuna. Lokalera joateak, entseateak... ilusioa egiten digu. Fandok orain dela urte batzuk laga zuen taldea, baina beste bateria-jole batzuk hartu ditugu, eta Cesar sasoi batean taldetik kanpo egon da, baina orain taldean jarraitzen du eta inoiz ez du trabarik jarri jotzeko.

- Talde barruan aldaketak egon dira, baina baita kanpoan ere (gizartea, musikaren munduan...). Nola egokitu zarete sasoi berrietara?

Nahiko nahasia izan da. Sasoi batean gure CD-ak 'top mantan' salgai ikusten hasi ginen. Gu haserretu egiten ginen eta lagunek barre egiten zuten. "Zure muturren aurrean zure lana lapurtzea gustatuko litzaizuke", esaten nien. Pirateriaren arazo hori okerre-ra joan zen (Napster, Emule eta horrelakoe-kin), baina azken aldian sortu diren plataformekin ez dago pirateriaren hainbeste beharrik, Spotify moduko plataformekin edozein musika entzun daitekeelako diru gutxi ordainduta.

- Rocka duzue ardatz, baina bederatzi diskoetan hainbat estilo landu dituzue. Zein da E.H. Sukarraren esentzia?

Punk rock melodikoa da E.H. Sukarraren matrikula. Gure marka sendotuta dugula usate dut. Kanta berri bat egin eta edozeinek entzungo balu, nahiz eta gurea dela ez jakin, ezagutzen gaituenak E.H. Sukarraren abestia dela esango luke.

- E.H. Sukarraren zein disko da zure gogokoena?

Lehenengoarekin ('E.H. Sukarra'), hirugarrenarekin ('Garaien laberintoan') eta bos-



garrenarekin ('Sua urtzean') geratuko nintzateke. Azken bi diskoak konplikatuak izan dira, baina bat aukeratzekotan 'Azken gezia' hartuko nuke. Disko guztietan dago gure abesti enblematikoren bat. Bigarren diskoa ('Irtenbide bakarra') izan da gutxien ulertu den lana (nahiz eta jarraitzaileak izan), baina nahi izan genuena egin genuen. Lehenengo diskoaren arrakastaren ondoren, sudur-puntan jarri zitzaiguna egin nahi izan genuen. 'Garaien laberintoan', ordea, planifikatuagoa izan zen eta pop estiloa jorratzen hasi ginen, gaur egun jarraitzen dugun errezeta berdina. 'E.H. Sukarra' abestia ere nahiko poperoa da.

- 'E.H. Sukarra' abestia, adibidez, Euskal Herriko memoria kolektiboan iltzatuta geratu da, ereserkia izango balitz bezala. Nola sentitzen zarete horren aurrean?

Kontzertuetan publikoa gure kantuekin gozaten eta abesten ikustea zoragarria da. Gainera, belaunaldi ezberdinak batzen dira. Gure zaletu gehienak 40 urteko hamarka-

dan dabilta eta gure musika beraien bizipenekin lotzen dutelako miresten gaituzte. Bestetik, jende gaztea gure abesti berriak ezagutzen hasi da eta kontzertuetara etortzen da. Dibertsitatea dago gure publikoan.

- Zapatuan Untzagan joko duzue kontzertua. Etxean eta Sanandresetan. Berrezia izango da?

Guretzat bai, duda barik, eta eibartarrentzat berdin izatea espero dugu. Gau polita pasatzea eta historia egitea nahi dugu. 30 urte hauetako abestiak joko ditugu, jendearen gustokoak eta gure gustokoak. Errepertorio anitza egiten saiatu gara. Ordu eta erdiko emanaldi bizia izango da zapatukoa. Guk esaten dugun moduan, "sobra gabekoa".

- Iragan handia du E.H. Sukarrak. Nolako etorkizuna izango du?

Momentuz nahikoa dugu gaur egun dugun errepertorioarekin. Kontzertuak prestatzeko lokalera joan eta abestiak entseatzeko zeregina dugu orain. Ideia edo zirriborroak eduki behar dira disko bat sortu ahal izateko. Badugu zerbait, baina gehiago garatu behar dugu diskoa egin edo ez erabakitze-ko. Denborari bere lana egiten utziko diogu eta ez dugu mugarik jarriko. Gauzak ondo egitea da garrantzitsua.

"Ordu eta erdiko emanaldi bizia izango da San Andres egunekoa"



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Bidebarrieta 20

Tlfno: 943 20 16 69

facebook.com/oberenaharategia





MALEN ILLARRAMENDI: "Plater hegalaria" azoka egunean.

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

KRISTALAK

ARKITEKTOAK

olatz etxeberrila martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberrila

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea

Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.

INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.

ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 50
AJT Zihurtasuna S.L.P.
Barrena, 6 - behea ezk.

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@crystaleriaacha.com
ERAKUSKETA
Arikixaneko Zubian
eta faxa: 943 203 903

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN

PINTURA LANAK S.L.

Aitor Monterok Espainiako Kopa txapelketa irabazi du

Eibarko motorzaleak abiadurako autonomien arteko Espainiako Kopa bereganatu zuen Bartzelonako Montmelo zirkuituan jokaturako proban berriro ere podiumera igota. Oraingoan bigarren sailkatu zen gozatzeko aukera eskaini zion lasterketan, "hor aurrean aurkariekin gustora lehiatuz eta gradetan nituen lagun eta jarraitzaileak pozik zeudela nabaritutuz". Zapatuko lehenengo erlojuz kontrakoak erorikoa izan

zuen Monterok, baina bigarrenako motorra puntuan ipintzen jakin zuten bere taldekideek eta, horrela, bosgarren postua lortu zuen domekako irteerarako. Azkenean, denboraldiko zazpigarren podiumarekin batera, Espainiako Kopako txapela jantzi zuen amañatarrak. Lorpena aprobetxatuz, pilotoak eskerak eman dizkie Aitor Montero Team-ean berarekin lanean diharduten guztiei eta bere alde egin duten babesle denei



Monterok bigarren postuan amaitu zuen Montmelon.

Maite Barruetabeña igerilariak bere markak hobetu zituen Espainiako txapelketan

Xixonen jokaturako LXIII. Espainiako Neguko txapelketa absolutoan Eibar Igerixaneko ordezkariak lau probatan hartu zuen parte (100 estilo eta libreak, eta 50 bizkar eta libreak) eta lauretan bere markak hobetu zituen. Bestalde, Legazpin jokaturako alebin mailako Ligako bigarren jardunaldian gure herriko 11 ordezkari izan ziren eta Iker Calvo 200 bizkarrean eta 100 librean nagusitu zen. Eta Oñatin jokaturako benjaminen lehenengo jardunaldian, gaztetxo askok debutatu egin zuten horrelako txapelketa batean eta hor Paula Calvok lan bikaina egin zuen libre erako 200 metroko proban.



Eskubaloiko Somosi garaipenak ihes egin zion azken unean

Aurreko zapatuan Ipuruan jokaturako partiduan Eibar Eskubaloiko lehen taldeak ezin izan zuen neurketa bereganatu eta azken unean berdindu egin zuen Romo aurkari zuzenaren aurkako partiduan, 23na. Hori bai, giro bikaina bizi izan zen bertan, orain arteko sarrera onenarekin. Emaitza horrekin eibartarrek zazpi puntu dituzte sailkapenean eta, gutxinaka bada ere, gorantza egiten dihardu. Asteburu honetan jardunaldi garrantzitsua dute aurrean, Elgoibarren Alcorta Forging Group azken sailkatuaren aurka jokatu beharko duen norgehiagokan

WWW.GOIKOLUZILUMINACION.COM

ONDO PASA
SAN
ANDRESAK!!!!!!



GOIKO LUZ
AVENIDA OTAOLA 13
943 20 08 83

estetika *eta* **masajeak**

DIODO-LASERRA
promozioa!

izterondoak
+
besapeak
55 €

ezpaina
+
kokotsa
29 €

bularra
+
sabelaldea
65 €

hanka osoak
+
besapeak
+
izterondoak
125 €

hanka erdiak
+
besapeak
+
izterondoak
110 €

eskatu ordua

BISTA EDER, 2 618 57 16 99

**La
Vero**



Ipuruako juniorrak zaletuak agurtzen podiumetik.

Ipurua klubeko hiru talde igo ziren podiumera Euskalgym Torneoan

Asteburu bikaina antolatu zuten Euskalgym Torneoaren barruan Barakaldoko BEC-en eta Bilboko La Casillan, estatu osotik etorritako hamarnaka taldeekin. Barixakuan oinarri mailako infantil taldeak brontzekoa eskuratu zuten denboraldiko azken lehiaketan, parte hartu zuten 52 talderen artean. Zapatuan oinarri mailako Ipuruako jubeniak hartu zuten parte, bosgarren sailkatzeko 50 taldeen artean, Espainiako txapelketan aurretik lortutako hirugarren postua kasualitatea ez zela izan argi lagatzeko. Domekan, bestalde, abso-

lutu mailako taldeen ordua izan zen eta lan bikaina egin zuten, bai seniorrek eta baita juniorrek ere, kasu bietan zilarrezkoa eskuratzera. Seniorren kasuan 40 taldek hartu zuten parte eta juniorretan beste 31 taldek jardun zuten. Zilar horrekin Ipuruako seniorrek bederatziz podium lortu dituzte azken denboraldian, sei urrezko eta zilarrezko hiru. Azken talde bi horiek, gainera, munduko gimnasta onenekin hartu zuten parte Euskal Federazioak antolatzen duen Euskalgym Galan, BEC-en batu ziren 8.000 ikusleren aurrean.

Avia Saskibaloiko talde gazteenak Ipuruan

Asteburu honetan infantil mailako nesken taldeak eta alebin mailako biek jokatuko dute Ipurua kiroldegian. Beasaingo BKL Agorta izango dute aurkari infantil mailakoek eta Hondarribia (nesken kasuan) eta Errenteriako Oiarso (mutilenean) alebinetan; partidu guztiak domeka goizean jokatuko dira. Bestalde, senior mailako Avia Eibar Saskibaloiak Andoainean du erronka, bertako Zurrut SK-ren aurka, zapatuan, 19:15ean.

Urbateko waterpolistak garaile bueltatu ziren euren norgehiagoketatik

Gizonezkoen senior taldeak garaipen bidetik jarraitzen du (orain arte jokatutako partidu guztiak irabazi ditu Euskal Herriko 1. Mailan) eta aurreko domekan Claret Askartza B talde zailari 11-13 irabazten jakin izan zuen, talde-lan bikaina erakutsi eta gero. Bihar beste talde gogor bat izango du aurkari Orbea igerilekuan, historia handiko Bilboko Deportiboa. Emakumezkoen taldeak 8-11 irabazi zuen Santoñan, batez ere Nagore Lorenzo jokalaria nabarmendu zen partiduan. Infantil eta alebin mailako taldeak 21-7 eta 5-1 irabazi zieten, hurrenez hurren, Waterpolo Donostiko ordezkariak. Porrot bakarra jubentil taldeak jaso zuen, neurketa guztian aurretik joan ondoren azkenean 10-11 galtzeko Waterpolo Navarrarekin.



info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

Okindegia Gozotegia OGI BERRI
TEL. 943 53 05 26

#DETCIENDOLEIBARRI
OGI BERRI

F. CALBETÓN, 23

Enkarguak etxera eramango ditugu

Ogietan aukera zabala Ogi beroa
Tartak Pastelak Sanblasak
Bonboiak Arrautzak Esnea
Enpanadak Pizzak Edariak
Kafea Prentsa Aldizkariak
Egunero: 07.00-20.30 Jaiegunetan: 07.00-16.30

Hemen, kalitatea

OGI BERRI
CALBETÓN

ASTEBURUKO AGENDA**FOBALLA****1. Maila**

Real Sociedad - EIBAR (zapatua, 16:00)

Emakumezkoen 2. Maila

At. Madrid B - EIBAR (zapatua, 17:00)

3. Maila

VITORIA - Sodupe (zapatua, 16:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR B - Goierri Gorri (zapatua, 17:45)

Ohorezko Erregional Maila

EIBAR URKO - R. Union (zapatua, 12:30)

1. Erregionala

URKI - Zestoa (zapatua, 15:30)

Aloña - EIBARTARRAK (zapatua, 17:45)

JUBENILAK**Ohorezko Maila Nazionala**

EIBAR - Pamplona (domeka, 12:30)

Euskal Liga

Alaves B - EIBAR B (domeka, 11:30)

KADETEAK**Euskal Liga**

Indautxu - EIBAR (zapatua, 16:30)

FOBALL-ZALETUA

Bar Areto - Chic

Feredu - Ipur Sagardotegia

Durango - Slow XOK

JMR Erreformak - La Jara

Azkena Adahi - Bar Txoko

Los Paisanos - Garaj. Garcia

ESKUBALOIA**1. Nazional Maila**

Alcorta - SOMOS (barixakua, 20:30)

Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Maila

Oskarbi - MECALBE (barixakua, 20:30)

Gipuzkoako 1. Maila

Aritzatalde - HARITZA (zapatua, 17:30)

ERRUGBIA**Ohorezko B Maila**

AVIA - Oviedo (zapatua, 15:45)

Emakumezkoen Euskal Liga

AVIA (atsedena)

SASKIBALOIA**Gipuzkoako 3. Maila**

Zurruet SK - AVIA (zapatua, 19:15)

WATERPOLOA**Euskal Herriko 1. Maila**

URBAT - CD Bilbao (barixakua, 21:45)

Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Lauro - URBAT (barixakua, 20:30)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN**Mendizabal antzuolarrak zapatuan amaituko du Asperekin duen lotura**

Aitor Mendizabal Antzuolako aurrelariak San Andres eguneko jaialdian amaituko du Asperekin pilota profesionalean eginda-



ko ibilbidea. Jaialdiko lehenengo partiduan Andoni Tolosa izango du lagun Retegi Bi eta Bikuñak osatutako bikoteari aurre egiteko. Jaialdiko partidu nagusiak, bestalde, binakako lehen mailako txapelketaren bigarren jardunaldiko neurketa hartuko du, Eibarko enpresako bi bikoteen artekoa: Irribarria/Rezusta vs Ezkurdia/Martija. Azkenik, hirugarren neurketan, Agirre/Eskiroz eta Peña II/Aranguren bikoteek neurtuko dituzte indarrak, promozio mailako binakako txapelketaren barruan hau ere. Jaialdiak ematen du, beraz, pilotaz eta inguruko ez gozatzeko aukera. Binakako txapelketa nagusiko hurrengo bost jardunaldietako partiduak ere Eibarko Katedralak hartuko ditu, inguruko zaletuen pilota-gosea asetzeko lain.

XVII. San Andres aizkolari txapelketa jokoan

San Andres egunean bertan, eguerdiko 12:00etan hasita, jokatu da XVII. San Andres Aizkolari Txapelketa. Zapatuko jaialdi horretan hamar aizkolari izango dira beharrean jardungo dutenak txapelaren bila: "Zortzi kortera egin beharreko txandan helduen hiru bikotek jardungo dute, nor

baino nor; eta gazte mailako beste bi bikotek sei kortera egingo dute lana irabazteko". Antolatzaileek Alkidebak, Eibarko Udalak eta Eibar Fundazioak emandako laguntza eskertzen dute, "gure kirol tradizionalen alde egindako ahaleginarengatik".

Eibarko golfistak garaile Mungian

Eibar Golf Pitch & Putt taldeko ordezkariak indartsu dabilta azken aldi eta Mungia Ugoiti jauregian jokatuako binakako golf torneoan nagusitu ziren. Jose eta Sergio Ipiña izan ziren irabazleak, joko bikaina erakutsiz.





**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



**PINTURAS
ARRATE, S.L.**

- **Nexa Autocolor**
- **Pintura industrialia**
- **3M produktuen banatzailea**

MATSARIA, 34 behe - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

Gaur itxiko da Reala-Eibar zapatuko partidurako sarrerak hartzeko epea

Zapatuan arratsaldeko 16:00etan Donostiako Reale Stadiumean jokatuko den Reala-Eibar partidurako sarrerak gaur 13:30ak arte jaso ahal izango dira Eibar FT-ko bulegoetan. Eibarrak 600 sarrerak jaso zituen, euretako 350 Eibarko agentzia ofiziala den Premier Bidaiak-entzat gorde direnak, bertatik autobusa antolatu dutelako. Sarrerak 25 eurotan saltzen dira, denboraldi honetarako euskal klubek adostutakoari jarraituz.



Mayo eta Dominguez aurrean Logroñoeko txakur-krosean ere

Eibarko bi ordezkariak ondo lehiatu zuten La Rioja Adopta Ligaren lehenengo proban. Logroñoeko hiri erditik abiatu zen lasterketan ia 9 kilometroko ibilbidea osatu zuten, 200 metroko desnibelarekin. 130 partaidetik gora izan zituen probak eta Andoni Mayok bosgarren amaitu zuen Dexter txakurraekin hain maila altuko lasterketan. Sonia Dominguezek ere lan ona egin zuen eta 10. sailkatu zen Zeus txakurraekin. Biak, beraz, top 10ean sailkatu ziren; gero eta hobeto dihardute proba guztietan. Hurrengoko erronka domeka honetan izango dute, Etxebarrin, Euskal Txakurkros Ligako proban.

San Andres zoriontsuak!

 **hirurok**
TABERNA
Errekatxu, 1
Tel. 943 56 72 06

TXOKO
Giro alaia Sanandresetan!
UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR

 **SKAPE** Bar

Urkizu, 17 Tel. 943-120149
Ondo pasa Sanandresetan!

Akara
Untzaga Plaza, Eibar
943 043 782



ARIMA COOL TOUR

- Zer egingo duzue larrua lantzeko tailerlean?

Tailerra larruak eskaintzen dizkigun aukeretara hurbilketa bat da. Diru-zorro batzuk egingo ditugu material horrekin, eta gure gustora pertsonalizatuko ditugu. Patroi baten bidez gure zorroa diseinatu, apaindu eta margotuko dugu.

- Zein larru mota erabiliko duzue?

Kolore eta lodiera desberdinetako larru naturala erabiliko dugu. Eskulanak egiteko materiala guk eramaten dugu, jendeak ondo pasatzeko gogoia besterik ez du eman behar.

- Nolabaiteko trebezia behar da ala edonork hartu dezake parte ikastaroan?

Ez da beharrezkoa alde aurreko ezagutzak izatea, ezta trebetasun bereziak ere. Larruzko artisautzaren mundua modu erraz eta eskuragarrian aurkeztuko dugu. Norbaitek larrua lantzen alde aurretiko esperientzia baldin badu, gauza konplexuagoak egin ditzake, baina tailerra esperientziarik ez duen jendearentzat prestatuta dago berez.

“Sormena da gizartean ematen diren arazo askoren konponbidea”

Arima Cool Tour elkarteak larrua lantzeko tailerra eskainiko du ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11) abenduaren 17an, 19:00etan. Sormena erabiliz larruzko produktuak egiteko aukera eskainiko dute, norberaren gustoen arabera pertsonalizazioarekin. Ez da beharrezkoa eskulanak egiten abilezia edukitzea, ondo pasatzeko gogoia besterik ez da behar.

- Ikastaroa amaitzean, norberak etxean egin ahal izango ditu larruzko gauzak edo tresna eta material bereziak behar dira zuek proposatutakoa lantzeko?

Bai, etxean arazorik gabe jarrai dezake lanean. Baliabideak eta iradokizunak emango ditugu beharrezko materialak erosteko, eta erabiliko diren tresnak erraz lortu daitezke erosi nahi izanez gero.

- Arima Cool Tourren eskaintza oso zabal da. Nolako tailerrak eskaintzen dituzue? Zein da zuen filosofia?

Tailerretan espezializatuta gaude. Orain dela 10 urte hasi ginen, kasu batzuetan lantegien eskaintza oso pobrea eta kalitate eskasekoa zela ikusten genuelako. Arimako kideok sormen-kezka eta jakin-min amaigabeak ditugu, materialei eta teknikei buruz etengabe ikeritzen dihardugu, eurekin tailerrak egin ahal izateko. Gaur egun 350 tailer baino gehiago ditugu gai, helburu eta adin ezberdinentzat. Irakurketa sustatzeko jarduerak ditugu, birziklatze- eta iraunkor-

tasun-tailerrak, berdintasun-tailerrak, sukaldaritzakoak, familian egiten diren tailerrak... eta guztiek dute izendatzaile komun bat: guztiek dute osagai artistiko eta sortzaile bat, eta jardueraren bidez euskararen erabilera sustatzen dugu. Kontzeptu horietan oinarritzen da gure filosofia: sormena eta euskararen sustapena, kalitatezko materialak erabiliz, partaideak hunkitzea eta motibatzea helburu duten jardueren bidez.

- Gizartean, oro har, sormena gehiago landu beharko litzateke?

Jakina. Sormenak egiten gaitu bakar. Gure hatz-marka bezalakoa da, bakarra eta faltsifikatu ezina. Norberaren motibazioa, ilusioa eta autoestimua indartzen dira sormenaren ondorioz. Hezkuntza-sisteman guztiok dugun kalitate hori indartuko balitz, aurrera doan etorkizuneko gizarte bat sortuko genuke, kezka dituen, bizirik dagoena eta eboluzionatzen dena. Irmoki sinesten dugu sormena dela gure gizartean ematen diren arazo askoren konponbidea.



Durangaldeko Artisten Elkarte

Durangaldeko Artisten Elkarte Topalekuan

Astelehenaz geroztik ikus daitezke Durangaldeko Artisten Elkartearen artelanak Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. Abenduaren 8ra arte egongo da ikusteko moduan, egunero, arratsaldeko 18:30etik 20:30era.

Guraso berbalagunek arratsalde polita pasa zuten Barixakuak Jolasian

Gurasoak Berbetan, familia giroan euskeraren erabilera bultzatzeko ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen programak saio irekia egin zuen aurreko barixakuan. Kanpaina berezia egiten dihardu ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Haur Hezkuntzako familiarik programan parte hartzera animatzeko. Asmo horrekin antolatu zuen, hain zuzen ere, barixakukoa eta parte hartzera animatu ziren guraso eta seme-alabek primeran pasatu zuten, jolas artean. Hurrengo saioa abenduaren 13an izango da eta Gabonetako apaingarriak egingo dituzte, 17:00etatik 18:00etara ...eta kitto!-n bertan. Tailerlean parte hartzeko Gurasoak Berbetan programan izena emanda egon behar da, baina izena eman gabe parte hartu nahi izanez gero, alde aurretik 943200918 telefonora deitu daiteke.





Bertsolariek saio biribila egin zuten Portaleko jaialdian

San Andres jaien inguruan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen bertso jaialdian bikain aritu ziren domeka arratsaldean Onintza Enbeita, Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga eta Maddalen Arzallus bertsolariak, Jon Mikel Mujikak ipinitako gaiei kantatuta. Aurretik, aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleek saritutako bertsoak abestu zituzten eta saria jaso zuten. Edizio honetan, helduen mailan, lehen saria



lñigo Legorburu hernaniarrak eskuratu du eta bigarrena Jesus Mari Gisasola "Trunboi" eibartarrak. Eta 16 urtetik beherakoen artean, lehen saria Beñat Oñederrak eraman du eta bigarrena June Alberdik.

"La Revoltosa" zarzuelaren bertso eguneratua eskainiko dute etzi

Estatu osoan zehar eskaini dituzten saio arrakastatsuek eta gero, San Andres egunean ailegatuko da Coliseora "La Revoltosa" zarzuela, Clasicos de la Lirica antzerki konpainiaren eskutik. XX. mende hasierako obra ezagunaren bertso eguneratua taularatuko dute Ana Maria Ramos, Antonio Torres, Enrique R. del Portal. Resu Morales, Pedro Javier, Ines Olabarria, Miguel Ferrer, Margarita Marban, Andres Mundo, Juan Fernandez eta Mario Sanchez antzezleek. Luis Roquero da eszena-zuzendaria eta musika-zuzendaria, berriz, Enrique Garcia Requena. Sarrerak 25 euro balio du (17 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Irungo Betiko Ametsa abesbatzaren kontzertua

Betiko Ametsa (Irun) abesbatzaren kontzertua hartuko du Karmengo Amaren elizak azaroaren 30ean, 19:45ean (sarrera libre), Sostoa Abesbatzak antolatuta. Emanaldiak ordubetik inguruko iraupena izango du eta honako egitaraua eskeiniko dute: "Locus iste" (Anton Bruckner), "Tebe Poem" (Bortniansky), "Heilig ist der herr" (Franz Schubert), "Ogi zerukoa" (Alexandre Lesbordes), "Aita gurea" (Aita Madina), "Biotz bat" (Pablo Sorozabal), "Baialdakizu Maite?" (Pablo Sorozabal), "Hymne a la nuit" (Jean Phillippe Rameau), "El mar muerto" (Rafael Alberti/Dante Andreo), "Ama" (Alexandre Lesbordes), "Te quiero" (Mario Benedetti/Alberto Favero), "Deep River" (H.T. Burleigh) eta "El abanico" (J. Trayter). Irungo abesbatza 60 andra-gizonek osatzen dute gaur egun.

Eibarren Akebai-ren batzarra

Abenduaren 10ean (martitzena), 19:00etan egingo da Akekideen urteko bigarren batzarra, Portaleko areto nagusian. Batzarrean 2019rako planaren eta aurrekontuaren berri emango dute eta, horrez gain, aurreikusitako ekintzen egoera azalduko dute.



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

Euskaraldiaren bigarren edizioa aurkeztu dute

lazko esperientzia arrakastatsuen ondoren, Euskaraldiak 2020. urtean izango du jarraipena. "Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan" egingo dela euskeraz aldarrikatu zuten Euskaraldiko antolatzaileek eta sustatzaileek aurreko astean egin zen aurkezpenean. Esandakoaren arabera, bi urtean behin garatuko den egitasmoa da eta datorren 2020. urteko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da bigarren edizioa (iaz baino lau egun gehiago iraungo du). "Ahabizi eta Belarriprest ariketaz gain, taldeetan hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera izango dute era guztietako entitateetako kideek. Horretarako, Euskaraldian garrantzia berezia hartuko duen kontzeptu berri bat sortu da: Arigunea. Euskeraz aritzeko babesgune modura osatutako guneak izango dira, taldean jarduteko aukera eman-



go duten espazioak", aipatu zuten aurkezpenean. Beraz, banakako harreman pertsonaletan ezezik, talde eremueta parte hartzeko aukera izango dute herritarrek (lantokietan, enpresetan, administrazio publikoan, herrietako asanbladetan, kultur zein kirol taldeetan...). Euska-

raldiaren antolatzaileak eta sustatzaileak 2020ko edizioa prestatzeko lanean dihardute eta Akebaik gonbidapena egiten die prestaketetan lagundu nahi duten eibartarrei (eibarrenakebai@gmail.com helbidera idatzi daiteke informazio gehiago eskuratzeko).

Gurs Experience, artea eta memoria batzen dituen erakusketa

Abenduaren 12an zabalduko dute Portalean "Gurs Experience. Artea eta memoria" erakusketa. By AskatasunArte - Arte & Libertad elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatutako erakusketa Frantzian, Irungo mugatik ordu eta erdira dagoen Gurs esparruaren historiari buruzkoa da eta, besteak beste, Espainiako Gerra Zibilean eta Bigarren Mundu Gerran pertsona askok jasan zituzten basakeriak azaltzen ditu. Izan ere, harrera eta



babesa emateko eremu modura sortu arren, azkenerako nazien sarraski-eremu bilakatu zen. Bertatik 60.000 pertsona

baino gehiago pasatu ziren eta, hango kanposantuko 1.073 hilobiek agerian lagatzen dute nolako bizitza-bal-

dintza gogorrei egin behar izan zieten aurre bertakoei. Erakusketak testu historikoak eta artxiboko argazkiak uztartzen ditu, baita "Gurs, un recuerdo desde el olvido" dokumentala egitean ekoiztutako ikus-entzuzko materiala ere. Dokumental horren proiektioarekin lagunduko diote erakusketa-aren inaugurazioari hain zuzen ere, abenduaren 12an, 19:30ean Portalean. Urtarrilaren 12ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, ohiko ordutegian.



Ikasle talde asko izan dira bisitan.

300 bisitari izan ditu Soka erakusketak lehen hiru asteotan

Dantzan Biharriaren ikus daitekeen "Soka, euskal dantzaren urratsetan" erakusketatik 300 bisitari baino gehiago igaro dira hiru asteotan. Antolatzaileen berbetan, "La Salle ikastetxetik etorritako DBHko 1. mailako ikasle-talde batekin gainditu da 300 bisitarien langa". Izan ere, norbanakoak tantakantaka joateaz gain, hainbat talderen bisitak izaten ari dira: Iralen ikasle diharduten irakasleak, Udala

Euskaltegiko ikasleak, La Salle ikastetxeko ikasleak... eta bisita gidatuak ez ezik, Dantzan Ikasi programan antolatutako bisita-dantzuak ere egin dituzte. Abenduaren 15era arte egongo da erakusketa ikustera joateko aukera, astelehenerik barixakura 09:00etatik 20:00etara eta zapatu, domeka eta jai-egunetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara (San Andres egunean itxita egongo da).



Herrixa Dantzan abenduaren 7an ELGETAN

Laugarren urtez hartuko dugu Elgetako Espaloi kafe-antzokian Escamot català. Ohiko dantza-giroaz gain, dimentsio politikoa ere eman nahi izan diote aurten. Hala, Katalunian bitzen ari den egoeraz hitzaldi-tertulua antolatatu dute udaletxean eguerdian, ondoren L'estaca abestea plazan eta, arratsaldean, dantzaldi nagusiaren aurretik, Kataluniako dantzen ikastarotxoak. Hogeita hamasei lagun etorriko dira aurten Escamot català txangoan Euskal Herrira, eta hiru parada egingo ditu: Iruñea, Elgeta eta Lakabe (Nafarroa). Elgetan abenduaren 7an hartuko dituzte.

Hauxe da egitarau osoa: 12:00 Udaletxean harrera eta hitzaldi-tertulixa Kataluniako egoeraz: Kataluniatik zer berri? bizipenak, sentipenak eta aurreikuspenak gaur, bertatik-bertara bizitzen ari direnen ahotik.

13:00 L'estaca abestea plazan eta musika-kalejira

18:00 Dantza-tailerra: Kataluniako dantzak Joan Codina Vila-rekin, Espaloi kafe-antzokian (*)

20:00 Talo-dantza: Escamot català + EkoTaloak + edatekoak Espaloi kafe-antzokian

(*) Dantza-tailerrean izena ematea derrigorrezkoa:

udaletxean, edo www.elgeta.eus webgunean, (prezioa: 5,00 euro, bertan eskura ordaintzeko)

Antolatzaileak Herrixa Dantzan, Elgetako Udala eta Elgetako Gure Esku Dago dira.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena

hildakoak

- Carmen Dominguez Azpiazu. 92 urte. 2019-XI-12.
- Manuel Herrera Garcia. 73 urte. 2019-XI-21.
- Antonio Bastida Arriaran. 98 urte. 2019-XI-22.
- Natividad Larrañaga Alzelai. 83 urte. 2019-XI-22.
- M^o Carmen Elejalde Narbaiza. 88 urte. 2019-XI-24.
- Valentina Taverro Pachon. 95 urte. 2019-XI-26.

jaiotakoak

- Aiur Ben Driss Ourdi. 2019-XI-17.
- Martin Perez Delgado. 2019-XI-18.
- Luken Visus Zugasti. 2019-XI-18.
- Asier Alberdi Peixoto. 2019-XI-18.

5				9			4
	2		4			1	7
			2	1			5
4		3		8		1	
	7					5	
		8		1	4		9
3			2	7			
1	9			3		8	
7			1				3

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

9	4	6	5	8	3	7	1	2
8	7	1	2	9	4	3	5	6
2	5	3	1	6	7	8	9	4
4	3	2	8	1	9	5	6	7
7	6	9	3	4	5	2	8	1
5	1	8	7	2	6	4	3	9
3	2	4	6	5	1	9	7	8
1	8	7	9	3	2	6	4	5
6	9	5	4	7	8	1	2	3

farmaziak

Eguena 28

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

Barixakua 29

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

Zapatua 30

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

ABENDUA

Domeka 1

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

Astelehena 2

EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)

Martitzena 3

EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

Eguaztena 4

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

Eguena 5

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

Barixakua 6

EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)

Zapatua 7

EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)

Domeka 8

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

Astelehena 9

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

Martitzena 10

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

Eguaztena 11

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

Eguena 12

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

Barixakua 13

EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2019AN-

Zulueta (San Agustin, 5)

telefono

jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	900 17 11 71
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Eibar Ospitalea.....	943 03 29 00
Mendaro ospitala.....	943 03 28 00

Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	944 33 33 33
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Andretxea.....	943 70 08 28
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokazale	
Anonimo eta Familiak) ...	699 37 75 20

Eguena 28

ODOL-EMATEA

18:00. Odol-emaileentzako saioa. Anbulatorioan.

KALEETAN KANTUZ

18:00. Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatutako etxean.

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

DOKUMENTALA

19:00. *"Supervivencia y rebelion de las mujeres en el conflicto armado"* eta solasaldia. Aura Marina Yoc Cosajay (Actoras Cambio de Guatemala). Portalean.

BILERA

19:00. Udalaren eta herritarren arteko auzo-bilera. Urkiko parrokian.

Barixakua 29

SANANDREUS

11:00. San Andres+ Euskeraren Eguna ospatzeko jaialdia, Armeria Eskolaren eskutik: sagardoa, pintxoak, txalaparta, herri-kirolak, jolasak, Niala magoa, sorpresak... Ekimen irekia. Untzagako karpan.

Zapatua 30

SAN ANDRES EGUNA

09:30. XLI. San Andres Azokaren epaimahaiaren lanen hasiera. Ganadu erakusketa.

12:00. Bikoteka, aizkolarien txapelketa (bi bikote gazte eta hiru heldu).

12:00. Meabebasterretxea eta Mendizabal bertsolariak eta Jainaga eta Narbaiza trikitalariak. J.B. Gisasola Musika Eskolako trikitalariak.

12:30. Plazara Dantzara erromeria, Jainaga eta Narbaizarekin, Kezka Dantza Taldearen eskutik.

13:00. San Andres Azokako, Pintxo Txapelketako eta Kartel Lehiaketako sariak banatzea.

SAN ANDRES EGUNA

18:00. Plazara Dantzara erromeria, Txaltxa Zelaiko karpan, Iruñako Gathubi musika taldearekin.

23:30. Kontzertua: EH Sukarra+Bad Sound. Untzagako karpan.

KONTZERTUA

19:45. Betiko Ametsa (Irun) abesbatza. Sostoa antolatuta. Sarrera libre. Karmengo Amaren elizan.

ZARZUELA

20:30. *"La Revoltosa"* (Compañia Teatral Clasicos de la Lirica). 25 euro (17 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Domeka 1

KULTURARTEKO TOPAKETA

10:00/15:00. Akroyoga tailerra.

11:00. Ipuin-kontakteta, euskeraz.

12:00. Cross-boxing tailerra. Marrokiar musika.

12:30. Afrikar perkusioa eta dantzak.

13:30. Soka dantza.

14:00. Moda tailerra eta desfilea. Munduko Terraiza (jatorri anitzeko janari eta pintxoak). Untzagan

SANTA BARBARA

10:30 eta 11:30. Bisita gidatua Museoko erakusketara, Jose Luis Valenciagaren eskutik. Sarrera doan. Armagintzaren Museoan.

2. URTEURREN JAI

11:00. Zuzeneko musika eta bermuta. Sarrera libre. Helmet Housen (Blas Etxeberria, 1).

KONTZERTUA

12:00. Untzagako jubilatuen abesbatza. Karmengo Amaren elizan.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45. Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

KONTZERTUA

19:00. Empty Files taldea, EMGE Domeka Kulturalak ekimenaren baitan. Doan. Portalean.

Astelehena 2

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatutako eta Pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 3

IKASTEN

10:00. *"Berpizkundea made in China (II)"* hitzaldia, Urko Barrosen eskutik. Sarrera libre. Armeria Eskolan.

EUSKERAREN EGUNA

11:00, 15:00 eta 15:30. Dantzaldia.

17:15. Anbulatorioetik, kalejira Untzagaraino (17:30 Depor, 17:45 Untzaga).

18:00. Eibartarrok sarea egingo dugu.

19:00. Euskera-ordenantza berrien aldeko Udal Batzaren adierazpen publikoa Udaletxeko Pleno Aretoan. Eibarko Euskalgintza Taldeak eta Eibarren Akebaik antolatuta.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.

17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19:00. Idazlearekin Harixa Emoten: Harkaitz Canok "Fakirren ahotsa" irakurri dutenekin ideiak eta bizipenak elkartrukatu dituzte. Antxon Narbaizak dinamizatuko du. Saio irekia. Portalean.

Eguaztena 4

EUSKARAREN GINKANA

12:00. Debabarreneko Euskararen Ginkanaren finala. Coliseoan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

Eguena 5

IKASTEN

10:00. *"Pablo Sorozabalen biografia"* hitzaldia, J.F. Gutierrezen eskutik. Sarrera libre. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

18:00. Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatutako etxean.

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HITZALDIA

19:00. *"Procedimiento para conseguir la nacionalidad española"*. Portalean.

Domeka 8

TXAKURKROSA

08:30/13:30. Eibarko I. Txakurkrosa. Arraten.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45. Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

Astelehena 9

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatutako eta Pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 10

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.

17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

MUSIKA-TAILERRA

18:00. "Trakamatraka", instrumentu birziklatuen tailerra. 2 euro. Coliseoan.

BATZARRA


19:00. Akekideen urteko bigarren batzarra. Portalean.

Eguaztena 11

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, TXOMIN!!! Astelehenerian urtetxua beteko dozulako! Musu erraldoia lehengusu guztien eta, batez be, Pelloren partez.



Zorionak, MADDI, datorren eguaztenian 7 urte beteko dozuz-eta. Oso ondo ospatu eta patxo haundi bat famelixaren partez.



Etxeko printzipituak 2 urte betetzen dituu. Zorionak, UNAX! Musu potolo bat aitaxo eta amaxoren partez.




JONE ederra, jarraitu bihurri eta alai 6 urte bete ondoren be! Patxo potolua famelixa guztiaren partez. Muuaaaaaaaaaa!



Zorionak, DANI Roige Casuso, abenduaren 1ian 8 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, IZAR, zapatuan 2 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Laida ahiztiaren partez.



Zorionak, OIHAN, abenduaren 1ian 11 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IZAR! Eguaztenian 10 urte bete zenduaz-eta. Maite zaittugu!



Zorionak, ANE Artetxe Barrutia, azaruaren 30ian 3 urte egingo dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Aizea eta Maialenen partez.



Zorionak, LUR!! Atzo 8 urte jaixo ziñala!! Edarto ospatuko dogu aitzitxa eta amamarekin Eibarren. Patxo potoluak, potxola!!



Zorionak, UNAI, gaur 12 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta lagunaren partez.



Zorionak, ANDRES, zure santuan, Eibarko zure lagunaren partez. Ondo pasatu zuretzat hain garrantzitsua dan egun hori.



Zorionak, HAIZEA, gaur urtiak egitten dozuzelako, eta amama JUSTI, abenduaren 2xan zure eguna dalako. Asko maite zaittuen famelixa guztiaren partez.

Erakusketak

Azaroaren 30era arte:

- ENRIQUE LORENZOREN ARGAZKIAK (El Ambigú taberna)
- TONI CATANYREN ARGAZKIAK (Eibarko Klub Deportiboa)
- SILVIA TARDÍO, ESTRELLA TARDÍO ETA FERNANDO SOLANA (Portalea jatetxea)

Abenduaren 1era arte:

- EXFIBAR 50. URTEURREN SEILUAK (Portalea)
- "SUKALDATZEN MADE IN EIBAR" (Armagintzaren Museoa)
- "LARRABEITI PINTOR, LARRABEITI FUTBOLISTA" (Untzagako Jubilatut Etxea)

Azaroaren 8ra arte:

- DURANGALDEKO ARTISTEN ELKARTEA (Topaleku)

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
30ean: 22:30
1ean: 20:00
2an: 20:30

"Pequeñas mentiras para..."
Zuzendaria: Guillaume Canet



(1 ARETOAN)
30ean: 19,45
1ean: 17:00, 20:00 (ANTZOKIA)
2an: 20:30 (ANTZOKIA)

"Puñales por la espalda"
Zuzendaria: Rian Johnson



(2 ARETOAN)
30ean: 22:30
1ean: 17:00, 20:00
2an: 20:30

"Los miserables"
Zuzendaria: Ladj Ly



(2 ARETOAN)
30ean: 17:00, 19:45
1ean: 17:00 (ANTZOKIA)

"Frozen II"
Zuzendaria: Chris Buck



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai R. Galdos kalean. 3 logela eta 2 komun. 90 m². Terraza eta dena kanpora begira. Oso egoera onean. Sartzeko moduan. Tel. 671-258740.

1.2. Errentan

- Lau irakasle pisua hartuko lukete Eibarren alokairuan. Bermearrekin. Tel. 634-419894.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Bulegoa salgai Bidebarrieta 27ko 2. solairuan. 30 m². Kanpora begira. Zerbitzu orokorrekin. Prezioa adosteko. Tel. 607-658356.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Arrate Biden, beheko solairuan. 95 euro hilean. Tel. 658-724552.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 632-098382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-434004.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 617-610706. Isabel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 658-273486.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Ziurtagiriarekin. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanetarako eta sukaldari moduan. Tel. 641-693067.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 603-651876.
- Mutil arduratsua eskaintzen da pintore edo iturgin moduan eta eraikitzen edo nekazaritzan jarduteko. Esperientzia. Tel. 667-204456 eta vallecillo12@gmail.com
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-915336.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 617-810065.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-837026.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 681-013032.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 632-700803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-862059.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-724060.
- Emakumezkoa eskaintzen da etxeak garbitzeko eta gaeuz nagusiak zaintzeko. Tel. 602-490595.
- Emakumezkoa eskaintzen da etxeak garbitzeko eta gaeuz nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 603-346659.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-329213.
- Mutila eskaintzen da pintore-laguntzaile moduan, eraikitza edo arotz-lanetarako eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 697-666992.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 610-800063.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Tel. 612-574783.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 633-434249.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 663-522072.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernan edo dendan lan egiteko. Tel. 666-843393.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-628807.

4.2. Langile bila

- Furgoneta duen autonomia behar da buzoietan banaketa-lanak egiteko astean behin. Tel. 656-704387.
- Langilea behar da estetika zentro baterako. Tel. 690-201160.
- Grafiteroa behar da etxea apaintzeko. Tel. 689-232882.
- Dekorazaila behar dugu Eibarko denda dekorazio batean. Bidali curriculum: m.c.agirrezabal@gmail.com
- Emakumezko euskalduna behar da arratsalde umea lau orduz zaintzeko. Tel. 619-150710.
- Kamarera/o behar da Eibarren egun osorako. Bidali curriculum: tre@euskainet.net

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta modulatorako klase partikularak ematen dira. Tel. 678-937827. Patricia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Gitarra elektriko salgai. Tel. 605-711422.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko domekan gizonezko ezkontza-eraztuna galdu da Ipuru inguruan. Barrutik grabatuta dago. Tel. 650-073897.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa

**Eibarko BM-n gaude
Ondo pasa Sanandresetan!**

• **Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena**

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com



FISIOTERAPIA

ZENTRUA


Ane Mendia

970 kol. zkia.

Arragueta, 20 - behea

943 530642

**ONDO PASA
SANANDRESETANI!**



ane_mendia@hotmail.com

*indiba terapia / kirol lesioak / masajeak / tendinitisak
bizkarreko minak / esquinzeak / etrez-etreko zerbitzua*

Zatoz gure eskaintza berriak probatzera.

Hipopresiboak, k-strecht eta ergonomia

hobetzeko klase pertsonalizatuak.





Eibarko Udalak
Euskararen Aldeko Ordenantza

indarrean du, eta udalbatza berriak herritarren
hizkuntza eskubideak bete daitezen eta

Eibar euskaldunagoa
izan dadin lanean jarraituko du

[https://www.eibar.eus/eu/kultura/euskara/arautegia/
euskararen-udal-ordenantza-1/euskararen-
ordenantzaren-laburpena/view](https://www.eibar.eus/eu/kultura/euskara/arautegia/euskararen-udal-ordenantza-1/euskararen-ordenantzaren-laburpena/view)



Eibar
EUSKALDUNAGOA
gogoan